

Herririk Herri |4|

Auzoak herriguneagaz lotu gura ditu Elorrioko Udalak garraio zerbitzuagaz



Berbaz |8|

J. Landa: "Lehentasunetako bat da udal langileak giza eskubideetan prestatzea"

Kultura |11|

Elorrioko XXI. Jazz eta Blues Jaialdia, lau gautan, taula gainean



Joan den zapatuan Fumbarriko langileek manifestazioa egin zuten Durangoko kaleetan.

Fumbarriko beharginak hilabete greba mugagabea

> LAB sindikatuak eta enpresak akordioa sinatu zuten atzoko batzarrean

> Langileek gaur goizean eztabaidatuko dute greba bertan behera utzi ala ez

2

Onenen ordua Olazar Pilota Txapelketan

KIROLA• Datorren egunean hasiko dira final-laurdenak jokatzeko Zaldibarko pilotalekuan. Orain arte ez da sorpresa handirik egon eta onenak heldu dira azken txanpara. Ordezkaritza zabalena nafarrek eta gipuzkoarrek osatzen duten arren, Azpiri eta Landaburu elorriarrak ere finalerdietarako lehian ibiliko dira. Jardunaldiak abenduaren 2ra arteko egunetan eta San Andres egunean jokatuko dituzte.

19

•Berriz

Etkez etxeko janari zerbitzua martxan jarri gura du udalak

7

•Durangaldea

'Izarren distira' lehiaketako finala zapatuan Durangon

6

•Atxondo

Urtea amaitu aurretik ekingo diete eskola handitzeko lanei

4

•Durango

Txakur Erakusketa, domekan, Landako Gunean

3

hortz klinika

Ekoden

Arkotxa, 4 - Etxabea
48200 DURANGO
Tel.: 94 621 78 22

EZ GARA FRANKIZIA GURE ARDURAPEAN ZAUDE

www.clinicaekoden.com

ZX-27 kristalezko inplanteen sistema iraultzailea

sistema honi esker, ez da ebakuntzarik egin behar, eta protesi finkoa eraman daiteke, hezurrik eduki ez arren

www.hypodent.sk/en/zx_27.html

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

LAB eta Fumbarriren akordioa, langileen baiezkoaren zain

Langileak LABek sinatutakoagaz ados badaude, gaur amaituko dute greba Fumbarri enpresan

Atzo LAB sindikatuak eta enpresako zuzendaritzak Fumbarriko greba mugagabeari amaiera ipini diezaiokeen akordioa sinatu zuten. Gaur LABek —lau ordezkari ditu— langileekin batzarra deitu du. Sinatutakoagaz ados agertzen badira, greba utziko dute. Herenegun antzeko edukia zuen batzar batek aldeko 40 boto eta kontrako zazpi jaso zituen. Beraz, LABeko ordezkariak “itxaropentsu” daude. CCOO—ordezkari bat du— ez du akordioa sinatu, ñabardura batez ez daudelako ados.

Langileen aldetik eskakizunik garrantzitsuenak ziren enpleguaren bermea eta baldintza ekonomikoen gaineko akordioa joan zen aste amaieran adostu zituz-

ten. Horrela, bigarren enplegu-erregulazioko espedienteak otsailan amaitzen da eta enplegua, hura amaitu eta beste sei hilabetean bermatua daukate. Hirugarren espediente bat balego, 2011 amaitu arteko litzateke eta, ondorioz, enplegu bermea 2012ko uztaila hasi arte luzatuko litzateke.

Alderdi ekonomikoari dago-kionez, erregulazio espedientearen egon diren bitartean, legeak ezartzen duenez, oinarritzko soldataren %70 kobratu dute; zuzendaritza %10 gehiago ordaintzeko prest dago eta, beraz, oinarritzko soldataren %80 kobratuko dute. Horrez gainera, orain arte aparte-ko ordainsaria proportzionalki ordaintzen zitzairen, eta hemendik aurrera ordainsari bakarra eta finkoa izango dute.

Hala ere, langileek greban jarraitu dute asteon, dagoeneko lotu dituzten beste eskaera batzuk airean zeudelako; asteburuetan edo opor egunetan lan egitearen gainekoak, esaterako. ■ J.D.

Ordez-kari bat duen CCOO-k ez du akordio hori sinatu “ñabardura” batekin ez dagoelako konforme



Azkeneko asteetan hainbat protesta ekitaldi egin dute Fumbarriko langileek.

50 gaztetxo batu zituen Berbarok Pekin Express euskaldunean

Pistarik pista Zornotzara eta Bermeora joan ziren hainbat proba gainditzera

Gazteen artean euskararen erabilerara sustatzeko eta euren arteko hartu-emanak sendotzeko asmoz, Berbaro euskara elkarteak ekimen berezia gauzatu zuen joan zen

Joandako herri bakoitzean hainbat proba gainditu behar izan zituzten gaztetxoak



Berbaroko hezitzaileak eta gaztetxoak tren geltokian.

domekan. Santa Anan elkartutako 50 gaztetxoek (10-13 urte artean) eta 17 hezitzaileen artean zazpi talde eratu, nork bere bandera hartu, eta pistarik pista helmugara eta garaipenera eramango zituen jokoari ekin zioten: Pekin Express euskaldunari.

Durangon gainditutako probetako azkenak tren geltokira eraman zituzten gaztetxoak. Zornotzan gertatu eta beste hainbat probaren ondoren, berriro trenera igo ziren. Hurrengo geltokia: Bermeo. Portuan gora eta behera —faroraino ere joan behar izan zuten— ibili ziren probak gainditu eta puntuak batzen. Esaterako, proba batean harira lotutako ganbak batu behar izan zituzten.

Bueltako trenean atsedenik ez, eta bertsoak osatu guran garuna estutu behar izan zuten. Durango-ko azkeneko proban hainbat durangarrekin argazkiak atera zituzten. Azkenean denak pozik eta, neurri berean, nekatuta. ■ J.D.

Durangoko erreka oinarri hartuta argazki lehiaketa abiatu du +Dendak-ek

Edonork parte hartu dezake eta azaroa amaitu aurretik gehienez hiru argazki aurkeztu daitezke

Durungaldeko + Dendak merkatarien elkarteak I. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia Durangotik igarotzen den erreka izango da eta, deialdia zabala denez, nahi duten guztiek parte hartu dezakete; durangarrek zein handik kanpokoek, eta profesionalek zein zaleak direnek.

Argazkien artean batzuk aukeratu eta erakuslehoetan erakutsiko dituzte

Gehienez hiru argazki aurkeztu daitezke, azaroa amaitu aurretik, honako helbidean: masdendak@masdendak.com. Postaz bidaltzeko honako helbidea jakinarazi dute: Durangoko Plateruen Plaza 8, 48200, Durango. Argazkiekin batera, argazki bakoitzaren izenburua eta parte-har-

tzailearen datuak (izen abizenak, jaiotze data, NAN zenbakia, posta-helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa) zehaztu beharko dira. Adin txikikoek legezko ordezkariaren izen deiturak eta NANA ere aurkeztu beharko dituzte.

Irabazleak 250 euro

Irabazleak 250 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 150 eurokoa. Beste sari bat ere emango dute, +Dendak Saria izenekoa (150 euro), baina atal honetan Durango, Iurreta, Abadiño, Izurtza eta Garaiko bizilagunak bakarrik sartuko dira. Merkatarien elkarteak webgune bat ere sortu du (www.durangoopina.com); bertan ipini-ko dituzte aurkeztutako argazkiak eta jendeak iritzia eman ahal du.

Aurkeztutako argazkien artean batzuk aukeratu eta Durangoko dendetako erakuslehoetan erakutsiko dituzte. ■ J.D.

Aralarrek Durangaldeko bere egoitza berria inauguratu du Artekalen

Ezenarro eta Zabaleta inaugurazioan izan ziren

Aralarreko hainbat ordezkari bildu zen joan den zapatuan, alderdiak Durangaldean duen Durangoko egoitza berriaren inaugurazioan. Ekitaldian ehun bat militante elkartu ziren Artekaleko egoitza berria ikusteko, baita beste alderdi politiko batzuetako eta herriko elkarte ugariak ere. Aureskua dantzatu ondoren, Udaltxeko plazan batu ziren. Patxi Zabaleta alderdiko koordinatzaileak, Aintzane Ezenarro Legebiltzarreko bozeramaileak, Dani Maeztu zinegotzi eta legebiltzar-kideak eta Mikel Anderez Iratzarriko kideak hartu zuten hitza. Egoitza berriko atea zabalik daudela herriar guztientzako azpimarratu zuen bere agerraldian Maeztuk. “Ia zortzi urtean gure lana udalean herritarren ahotsa aldarrikatzea eta defendatzea izan da. Hemendik aurrera behar berdina egiten jarraitzea itxaroten dugu”. Luntxagaz eta musikagaz amaitu zuten ekitaldia. ■ J.G.

“Egoitza berriko atea herriar guztientzako zabalik daude”



Aralarreko ordezkariak Artekaleko egoitzaren aurrean.

DIURRETA

Hasi dituzte N-634 errepide azpiko igogailuen lanak

Autobus geltoki ondoan hasi dira beharrean; 3 hilabete barru igogailuak amaituta egongo dira

Amilburutik autobus geltokira dagoen lur azpiko pasabidearen alboan igogailuak jartzeko beharrak hasi dira asteon. Zortzi pertsona sartzeko besteko igogailu bi ipiniko dituzte, bana bidearen alde bakoitzean. Autobus geltokiaren alboko igogailuaren beharrak eguaztenean hasi dituzte.

Hiru hilabete iraungo dute lanek, eta ez dute oinezkoentzako pasabidea oztopatuko. Beharrak amaitzen direnean, autobus geltokia apur bat atzerago geratuko dela azaldu du obrako arduradunak. Iurretako Udalak 230.000 euro inbertitu ditu igogailu horiek egiteko lanetan. ■ A.U.



Eguaztenean hasi ziren beharrean autobus geltoki ondoan.



Sergio Goiri fruitzarrak schnauzer arrazaren gaineko berbaldia emango du, zapatuan, Elkartegian.

200 arrazatako 900 txakur batuko dira etzi nazioarteko erakusketan

Domekan Landako Gunean egingo duten 45. Nazioarteko Txakur Erakusketak inoiz baino parte-hartzaile gehiago izango ditu

Domekan, 09:30ean hasi eta 19:00ak arte, 45. Nazioarteko Txakur Erakusketan parte hartzeko gonbita luzatu du Bizkaiko Txakur Elkartek. Durangok dituen azpiegiturak aprobe txatuz, Landako Gunean antolatuko dute erakusketa, eta 200 arrazatako 900 bat txakur batuko direla kalkulatu dute. Durangoko erakusketa Eder-tasunaren Nazioarteko Txapelketarako eta Espainiako Txapelketarako puntuagarria izango da. Horrez gainera, bestelako txapelketa bitxiak ere antolatu dituzte; esaterako, txakur beterranoen txapelketa (bederatzi urtetik gorako txakurrentzat) eta ugazaba gazterik onenarena. Izan ere, antolatzaileen esanetan, txakurraren berezko edertasunaz gainera, ugazabak dohain horiek luzituarazteko duen ahalmena ere garrantzitsua da lehiaketaren batean. Dena dela, domekako txapelketa txakur zaleei zuzenduta ere badago, arraza bereziak etorriko direlako; esaterako, Tailandiako arraza primitibo bat, bereizgarri nagusi bizkarrezurrean ilea kontrako norabidean haztea duena. Bestalde, bihar 17:00etan, Sergio Goiri txakur hezitzaile fruitzarrak schnauzer arrazaren gaineko konferentzia eskainiko du Landako Elkartegian. Hitzaldian, bertaratutako eniritziak ere jaso gura dituzte. ■ J.D.

Lehiaketak dauden arren, erakusketa zaleei zuzenduta dagoela adierazi dute

OTXANDIO

Talasoterapia sari, Otxandiori buruz dakiguna erakutsiz gero

Iaz legez, aurtun ere herri-ginkana antolatu du Euskara Batzordeak. Aurtengo ginkanean Otxandio historia, gaur egungo datuak, leku-izenak eta berben inguruko galderak erantzun beharko dituzte parte-hartzaileek. Gaurtik aurrera, astebururo hiruna galdera egingo dituzte herriko taberna bakoitzean. Hurrengo hiru asteetan zehar erantzun zuzen gehien ematen dituenak talasoterapian edo nekazal turismoan egonaldi bat irabaziko ditu. Sariak abenduaren 3an emango dituzte, Euskararen Nazioarteko Egunean. Bestalde, Otxandio Gaste Asanbladak eta Euskara Batzordeak antolatuta, bertso afaria prestatu dute, azaroaren 26rako, Amets Arzallus eta Uxue Alberdigaz. Trikitilariak ere egongo dira, gaua musikaz girotzen. Bertso afari horretan parte hartzeko sarrerak, dagoeneko, salgai ipini dituzte herriko hainbat tabernatan. ■ J.D.

Azaroak 15etik 30era %10eko deskontua produktu danetan

Euzkea

ARROPA ETA ZAPATA DENDA

Montebideo etorb. 3 • Durango (Bizkaia)

DATE - MOSCA NUEVA - le cop sportif - FRED PERRY - Onitsuka Tiger - Free Soul

ELORRIO

Aste Kulturala ospatuko du Berrio-Otxoa jubilatuko elkartek

Datorren astelehenetik zapatura hainbat ekintza prestatu dituzte Berrio-Otxoa jubilatuen elkarteak Aste Kulturala ospatzeko. Martitzenean *Autoestimua eta garapen pertsonala* izeneko hitzaldia eskainiko dute jubilatuen elkarteak egotzan. Eguaztenean Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza bisitatuko dute. Eguenean, berriz, Agustin Garamendi musika eskolak kontzertua eskainiko du.

Barikuan, igel txapelketa egingo dute eta karta txapelketako sariak banatuko dituzte. Edariak doan eskainiko dituzte. Zapatuan, azkenik, bazkaritara batuko dira eta ondoren hildakoen omenezko meza egingo dute. ■ J.D.

Auzoak herriguneagaz lotzeko garraio zerbitzua zelan garatu aztertuko dute

Datozen hiru hileetan auzotarrekin eta taxistekin hitz egingo dute auzotarren premiak ezagutzeko

Udalak Bitaka enpresari esleitu dio auzoak herriguneagaz gehiago lotuko lituzkeen garraio zerbitzuaren gaineko azterketa. Datozen hiru hileetan auzotarrekin eta taxistekin berba egingo dute, euren iritzien berri jakiteko.

Azterketak zehaztuko ditu beharizanak, baina arazoa herri-

ko baliabideekin konpontzea ere badenez helburu, taxistekin berba egingo dute, garraio mota hori zelan baliatu daitekeen jakiteko.

Iurretako Udalak, adibidez, auzoentzako taxi zerbitzua eskaintzen du telefonoz deituz gero, baina Elorriko zelanbaiteko linea erregularra sortzea dute helburu, autobusek eskaintzen duten zerbitzuaren antzekoa.

Azterketa horrek zehaztuko ditu zer auzok dituzten beharizan handienak eta asteko zer egunetan egon daitezkeen erabiltzaile gehien. ■ J.D.

Udalaren nahia taxiekin ordu zehatz batzuetan linea erregularra eskaintzea da



Elorriko taxistekin ere berba egingo dute azterketa osatzeko.

Prozesu konkurtsalean dagoen Fytasan, ELAk gehiengo sindikala lortu du

Hauteskunde sindikalean ELAk gehiengo lortu du; bitartean, negoziazioan ez dute pausu berririk eman



Langileek ez dute lan baldintzetan murrizketarik gura.

Prozesu konkurtsalean murgilduta dagoen Fytasa-Dutcilor enpresan hauteskunde sindikalak egin zituzten martitzenean. CCOOk gehiengo sindikala galdu du, eta orain ELAk du ordezkari gehien; hiru, hain zuzen (88tik 47 boto). CCOOk eta LABek ordezkari bana dute (19 eta 11 boto, hurrenez hurren). ELAko ordezkari Mikel Elizburuk langileek eurengan ipinitako konfiantza eskertu du.

Bitartean, lan baldintzen gaineko negoziazioak etenda daude. Astelehenean amaituko da negoziatio epea eta, oraingoz, ez dago adostasunik. ELAk bideragarritasun plan baten beharra azpimarratu du, "enpresaren biziraupena langileen soldatekin bakarrik ezin daitekeelako salbatu", diotenez: "Abendurako eskaerak badaude, baina urtariletik aurrera zer dagoen ez dakigu. Etorkizuna bermatuko duen azterketa behar da". Astelehenean ados ipini ezean, ez dute mobilizaziorik baztertzen, ezta grebarik ere. ■ J.D.

Erakargarritasuna bilatuz, altzari berriekin atonduko dute haur liburutegia

Sofa, puff eta tiradera-altzariekin hornituko dituzte 5-7 urtera arteko gunea eta bebeteka

Iturri kultur etxean dagoen haur liburutegiko 5-7 urte bitarteko guniak eta bebetekak altzari berriak izango dituzte laster. Horrela, "gune horien erakargarritasuna eta erosotasuna handitzea" dute helburu, liburutegiko arduradun Irantzu Unibasok azaldu duenez.

Bebeteka haur liburutegiko guneetako bat da, eta beirate batez banatuta dago gainerako guneetatik. Han tiradera-altzari bi, umeentzat egokituta egindako sofa bereziak, liburuentzako kaxoiak eta puffak ipiniko dituzte. Etorkizunean hormak kolore

biziz eta erakargarritasun pintatzea eta dekorazioa birmoldatzea ere badute helburu.

Haur liburutegiko 5etik 7 urtera arteko gunean ere sofak, puffak, liburuentzako altzariak eta aulkiak atonduko dituzte. Etorkizunean gainerako guneak berrantontzea ere badute helburu moduan. ■ J.D.

Gune horiek umeentzako erosago eta erakargarriago bihurtzea dute helburu

ZALDIBAR

Ilargik argazki lehiaketa eta 25. urteurrena ospatuko ditu egunotan

Domekan 25 urte beteko dira argazkilari taldea sortu zenetik; zapatuan ospatuko dute, afariagaz

Ilargi argazkilari taldeak San Andres jaietako argazki lehiaketa iragarri du, eta aurtengoa 20. edizioa izango da, dagoeneko. Gainera, sariaketa hau data berezian dator: taldeak berak 25 urte betetzen dituzte. Zapatuan ospatuko dute urteurrena, afari batez.

Hilaren 17ra arte aurkeztu daitezke lehiaketara lan fotogra-

Hilaren 26tik 28ra udaletxe zaharrean ipiniko dituzte ikusgai lanik onenak

fikoak. Gaia librea da, baina ezin dago bi argazki baino gehiago aurkeztu. Koloretakoak eta inoiz saritu bakoak izan beharko dute. Lanok 30x40 zm-ko kartulina batengainean aurkeztu behar dira.

Lanaren atzealdean egilearen datuak ipintzea eta Ilargiren egoitzarabidaltzea eskatu du antolakuntzak. Imendian dendan ere utzi ahal izango dira, eskura. Garaikur bana eta 300, 250 eta 200 euro, hurrenez hurren, jasoko dute lehen hirurek. Hilaren 26tik 28ra udaletxe zaharrean ipiniko dituzte ikusgai lanik onenak. ■ M.O.

ATXONDO

Urtea amaitu aurretik hasiko dituzte eskola handitzeko beharrak

Urte eta erdiko epea daukate lanak egiteko; eraikin berria prest egongo da 2012-13 kurtsorako

Hiru pisuko eraikin berria Gabonak aurretik hasiko dira eraikitzen Atxondoko eskolaren ondoan, txintxaunak dauden lursailen.

David Cobos Atxondoko alkateak jakinarazi duenez, "lanek irauten duten bitartean jolas-orduan frontoira joan beharko dute eskolako umeek, futbito zelaian obretarako kamioiak eta materiala egongo direlako".

Umeentzako txiki dabil gertatzen Atxondoko eskola, eta aspal-dikoa da berau handitzeko eskaria. Gaur egun 74 ikasle daude, eta datorren urtean 79 egongo dira.

Eraikin berriak hiru pisu eta 1.580 metro karratu edukiko ditu. Bertan egongo dira, besteak beste, zazpi ikasgela, jantokia, gim-

Lanek dirauten bitartean eskolaumeek frontoira joan beharko dute jolas-orduetan

nasioa eta liburutegia. 2012-2013 ikasturtean, lanak amaitzean, eskolaren gaur egungo eraikinean haur hezkuntzako umeen gelak egongo dira. ■ A.U.

GARAI

Gaztainerre eta jolasak zapatuan

Hilaren 20rako ekitaldiak eratu ditu Trumoitte kultur elkarteak. Gaztainerrean elkartzera deitu dituzte herritarrek eta, horretaz gainera, umeentzako jolasak ere prestatuko dituzte.

Frontoian ipini dute hitzordua, arratsaldeko 17:00etan. Lehenengo jolasak egingo dituzte: zaku lasterketa, txorokil batzea... Ohikoak diren hainbat jardueratan batuko dira umeak. Gero, 19:00ak bueltan, ailegatu-ko da gaztainerrearen txanda; hotzari aurre egiteko modu ederra. Merienda ere izango da tartean. Ekitaldi horiek, Olentzero-ren etorrera iragartzeko ekimean jasotako diruagaz ateratzen ditu aurrera Trumoitte kultur elkarteak. ■ M.O.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Kurutz ind. 1 zk. LAUDIO (A-68aren 3. irteera) • Urbitarte ind. 4. partzela, 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

DURANGALDEA



San Agustin kulturgunean egingo dute gala. Indra Murugarren

'Izarren distira' lehiaketako finala bihar San Agustinen

Nerabeen talentu lehiaketako finalean zortzi talde edo bakarlarri igoko dira Durangoko eszenatokira

Zapatuan, 19:00etatik aurrera, *Izarren distira* nerabeen talentu lehiaketako gala hasiko dute San Agustín kulturgunean. Azaroaren hasieran, eskualdeko herrietan egindako hiru castingetan, hamabost lan aurkeztu eta epaimahaiak horietatik zortzi aukeratu zituen biharko finalerako. Talde zein bakarlariek mota guztietako ikuskizunak eskainiko dituzte eszenatokian. Nerea Alias aurkezleak gidatuko du finaleko gala.

Antolatzaileen esanetan, eskualdeko herririk gehienetako gazteek parte hartu dute castingetan eta, oro har, maila handikoak izan dira. Batez ere, dantza eta abestietan oinarritutako ikuskizunak aurkeztu dituzte. ■ J.D.

Nerea Aliasek gidatuko du San Agustinen 19:00etan hasiko duten finaleko gala

Memoriaren egunean hainbat ekitaldi biktimak gogoratzeko

Durangon EAJk, PSE-EEK eta PPK lore eskaintza egin zuten Ezkurdiko monolitoaren aurrean; Aralar eta Talde Mistoa ez daude ekimenagaz ados

Memoriaren eguna dela eta, Durangon ekitaldi bi egin zituzten eguazteenan, bozeramaileen batzordeak horrela adostuta. Alde batetik, EAJ, PSE-EE eta PPK sinatutako erakunde adierazpena irakurri zuten pleno aretoan, eguerdian; bestetik, arratsaldean lore eskaintza egin zuten Ezkurdin, biktimen monolitoaren aurrean, Rosa Vadillok eta Carmen Hernández (Epifanio Vidal eta Jesus Maria Pedrosaren alargunak). Iurretan ere testua bozkatu eta aho batez

ere beste talde terrorista batzuek eragindako biktimak. Talde horiek, sufrimendua eragin zuten eta, horregatik, biktimak horiek ere aintzatespen bera merezi dute".

Aralarren ustez, "ekimen alderdikoia da, sinatzaileen alde tik ez baita egon Aralarrek testuagaz bat egiteko asmorik". Aralarrek "Frankismoaren biktimei eta

Estatuak egindako giza eskubide urraketa larriak pairatu dituztenei ere memoria eskubidea errekonozitzea" nahi zuen. Talde Mistoa-ren ustez, "biktima batzuk besteen gainetik" jartzen ditu: "Konponbidearen bidean, biktima denak maila berean ipini behar dira, eta ez batzuk bakarrik goraipatu eta besteak baztertu". ■ J.D./M.O.

Aralarrek eta Talde Mistoa ez zuten erakunde adierazpenagaz bat egin

onartu zuten. Ondoren, hamar minutuko isilunea gorde zuten udaletxe aurrean.

ETAK eragindako biktimak aipatzen ditu bereziki Eusko Jaurlaritzak proposatutako testuak, "euskaldunon elkarbizitza oraindik ere mehatxatzen duen taldea delako" dioenez. Baina, "baita



Rosa Vadillo Epifanio Vidalen alarguna monolitoaren parean.

hitza info

**zu
zara
berria**

euskarazko komunikabideak,
elkarlanean, berrituta, mugimenduan

berria info

Gure produktuak gertutik ezagutu
nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:

www.zuzaraberria.info

berriketan info



Durangaldean labur

Toponimia azterketaren lehenengo emaitzak, ikusgai

Orain dela bi urte ekin zion Berrizko Udalak proiektu honi. Euskaltzaindiaren tutoretzagaz, bekadun biibili dira landa-lana egiten; jendeari galdezka, artxi-boetan kontsultatzen eta gaur egun leku-izenak zelan erabiltzen diren jasotzen. Bihar, Kultur Etxean erakusketa zabalduko dute, hilaren 21era arte. Erakusketaren helburua leku-izenak berriztarrekin kontrastatzea da. Bihar 12:00etan ekitaldia egingo dute.

Martitzenean Fundiguelen eraikina botatzen hasiko dira

Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak aurrera-tu duenez, martitzen honetan hasiko dituzte Fundiguel enpresak zeukan eraikina botatzeko lanak. Maspe kalean urte luzez egondako enpresa honek 2009an lekualdaketa ekin zion, udalagaz lortutako akordioaren ondorioz, eta badira hilabeteak eraikina hutsik dagoela. Etxe-bizitzak egingo dituzte eremu horretan.



Alice Cooper ez dator Durangora

Antolatzaileek diotenez, arazo logistikoengatik utzi dute bertan behera hilaren 22ko kontzertua. Sarreraren dirua bueltatzen hasi dira, erositako lekuetan. Bartzelona, Madril, Valladolid edo Santiagoko kontzertura joan gura duenak antolatzaileekin jarri behar du hartu-emanetan.

BERRIZ

Mobilizazioa deitu du udalak, sahararren eskubideen alde

Eguaztenean egindako ohiko udalbatzarrean Aaiun inguruan azken egunotan jazotakoak salatu eta herri sahararraren aldeko adierazpen instituzionala onartu zuten. PSE-EEko zinegotzia soilik abstenitu zen, puntua “denbora gehiagoz landu” beharko litzatekela argudiatuz. NBERi, EBri eta Espainiako gobernuari sahararren giza eskubideak bermatzeko, Marokogaz duten elkarte-akordioa etete-ko eta gatazkari bidezko eta behin betiko irtenbidea emateko ekintza politikoak bideratzea eskatu zuten. Marokoko erakundeekin hartu-emanak izateari uko egin eta Sahararen autodeterminazioaren aldeko konpromisoa berretsi du udalak. Domekan 12:00etan izango da elkarretaratzea. Madrileko manifestaziorako autobusa ere ipiniko du udalak. ■ M.O.

ABADIÑO

‘Abadiño Sariak’ banatuko dituzte urte amaieran, lehenengoz

Bost abadiñarrek jasoko dituzte udaleko Kultura Sailak urte amaieran banatuko dituen ‘Abadiño Sariak’: besteak beste, urtean zehar egindako lanagatik, abadiñar “bereziak” izateagatik, ibilbide oparoa burutu izanagatik, edo nazioartean izandako proiektioagatik hautatutako lagunei eman-goz ditzkie udal gobernuak sariok. Bakoitzak dagokion eremuan, abadiñar horiek egiten duten lana goraipatzea da abenduan burutuko duten eta Javier Fernandez kazetari abadinarrak aurkeztuko duen ekitaldiaren funtsa.

Besteak beste, lan isila eta nazioarteko proiektzioa sarituko dituzte abenduan

“Egoera ekonomikoa aintzat hartuta, herri batzuetan hau lako sariketarik antolatzeaz utzi diotenean” honelako ekitaldi bat antolatzearen egokitasuna zalantzan jarri zuen EAJK urriko plenoan. “Ekitaldi oso sinplea” izango dela erantzun zuen gobernuak. ■ I.E.

Etxez etxeko janari zerbitzua ipintzea aztertzen dihardute

60 urtetik gorakoen iritzia jakin gura du udalak

Etxez etxeko janari zerbitzua eskuratzeko izan dezaketen interesa ezagutzeko asmoz, 60 urtetik gorako berriztarrei eskutitz bat bidali die udalak asteon; Gizarte Ongizate Sailak 2011. urtean martxan ipini gura duen zerbitzua da. Oraindik, baina, horretarako beharrezkoa litzatekeen araudia egin eta udalbatzarrean onartzeko dago. Enpresa bati esleitzea izango litzateke azken pausua.

Onen! izenagaz zabalduko da zerbitzua. Eguneko janari nagusia

Dieta pertsonalizatu eta elikadura ohituren jarraipena ere izango dute aukeran

prestatu eta hori etxetik etxera banatzea da eskainiko dutena. Gainera, dieta pertsonalizatu eta elikadura ohituren jarraipena ere izango da aukeran, udaleko ekitaldiaren ondorioz. Zerbitzuaren erabiltzaileek “etxean gustura egoteko eta autonomia mantentzeko behar duten laguntza izatea” da udalaren helburua.

Erabiltzaile izateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira: herrian errolatuta egotea, 60 urtetik gorakoa izatea, bakarrik bizitzea edo bikoteen kasuan antzeko egoeran izatea, gizarte zerbitzuen oniritzia eta etxebizitza egoera onean izatea.

Zerbitzuan interesa duten herritarrek, udaleko gizarte zerbitzuetara jo beharko dute. ■ M.O.

IZURTZA

Erizaintza eta medikuntza zerbitzua ordutegi berean

Medikuak eta erizainak, bakoitzak bere ordutegia zeukan orain arte. Bateratu egin dute zerbitzua

Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatuta Landaguneko emakumeen eskari eta errealitateak jorratzea helburu zuten batzarrek egiten hasi zirenean, udaberrian, mahai-gaineratutako eska-

rietako baten ondorioa da osasun zerbitzuaren ordu aldaketa. Lehen, bakoitzak ordutegi batean ematen zuten erizainak eta medikuak zerbitzua, eta biak elkarregaz jardutea izan da herritarren eskaria.

MAÑARIA

Ume, gazte zein helduei zuzenduriko irakurketa lehiaketa antolatu dute

Abenduaren 23an egingo dute sari banaketa; gaztetxoek liburu sortak izango dituzte sari

Abenduaren 23an emango dute amaitutzat mañariar guztiak parte hartzera gonbidatuta dauden irakurketa lehiaketa. Egun horretan, 18:30ean liburutegian egingo duten sari-banaketagaz emango dute lehiaketa amaitutzat.

Maileguan hartutako liburua bueltatzean, lehiaketako fitxa betetzeko proposamena



Nagusientzako zerbitzu berria ipini gura du udalak 2011n.

Emakume taldeak bultzatuta egin zuten sinadura bilketan 140tik gora izurtzarren babesak jaso dute; horrela lortu dute medikua, erizaina eta botika, hirurak, 12:30etik 13:30era izatea herrian.

Osasun-langileak eta herritarrek ere aldatetaz oso gustura daudela diote udalean. ■ I.E.

Ordu aldaketa eskariagaz bat egin dute 140tik gora izurtzarrek, sinadura bilketan

Parte-hartzaile bakoitzak liburu bi irakurri beharko ditu, gutxienez, hemendik urte amaierara arte; bakoitzaren gustu literarioen arabera, liburutegiko bildumatik hautatutakoak. Maileguan hartu eta irakurritako liburua bueltatzean, liburu zainak emandako fitxa betetzea da irakurketa sustatzeko helburua daukan ekimenaren parte hartu ahal izateko oinarritzko baldintza.

Liburu sortak izango dituzte sari lehiaketan parte hartu eta irabazle suertatzen diren gaztetxoek, eta afari bat 18 urtetik gorakoek. Izan ere, adinari begiratu barik, denei zabalik dago liburutegia eta lehiaketa. ■ I.E.

MALLABIA

Santa Zezilia eguneko kontzertua eta Gaztainerre

Mallabiko Jasokunde eta Mendibil abesbatzek Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko dute azaroaren 20an, 20:00etan, elizan. Ekitaldian trikitilariak eta Igone Ameztia sopranoak ere parte hartuko dutela azaldu dute ekitaldiaren antolatzaileek. Abesbatzen agendan urtero herrian antolatzen duten saioa da. “Abesbatza sortu zenetik kontzertu hau antolatzeaz eutsi diogu”, azaldu digu Iratxe Uribelarreak.

Musika emanaldiaren ondoren Gaztainerre antolatuko du eliza kanpoan Orraitio euskara elkarteak. Gaztainak erreko dituzte, jendearen artean banatzeko. Edaria ere banatuko dute bertaratzen direnen artean, Orraitio antolatzaileek azaldu digutenez. ■ J.G.

Santa Zezilia eguneko kontzertua eta Gaztainerre datorren zapatuan antolatuko dituzte

BERBAZ>

“Udalak gobernu txikiak dira; euren esku ere badago giza eskubideak babestea”

Giza eskubideak babesteko udalek behar handia egin dezaketela uste du Juan Landa abokatuak

Giza eskubideak errespetatzeko udalek ekarpen bat baino gehiago egin dezaketela-eta, jardunaldiak antolatu dituzte gaur Berrizen. Udal ordezkari-kin giza eskubideetan adituak diren pertsonak parte hartu dute jardunaldian. Tartean izan da Juan Landa abokatuak.

Zergatik ikusten duzu beharrezko udal mailan giza eskubideak babesteko hausnarketa egitea?

Giza eskubideak, batez ere, udal mailan kudeatzen direlako. Udalak herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak dira, eta hainbat arlotan egiten dute lan: inmigrazioa, emakumeen aurkako bortizkeria, adin nagusiko pertsonentzako zerbitzua, ezinduen laguntza...

Momentu honetan, zer dago udalen esku?

Aipatutako lan eta zerbitzu horiek guztiak eta gehiago betidanik daude udalen esku; udalak, azken baten, gobernu edo “estatu” txikiak direlako. Kontua da orain gutxira arte, giza eskubideak nazioarteko ardura dela pentsatu dugula. Udalak geroago eta kontzientzia handiagoa dabil-tza hartzen, zorionez.

“Herritarrek pairatzen dituzten erasoan aurrean ezkutu izan behar dute udalek”

Mozioen bitartez, elkarretaratzeak deituz... giza eskubideen urraketak salatzen dituzte sarri udalek. Hortik haratagoko lan bat egin beharko litzateke?

Noski baietz. Oso larria da –guztiontzat, gainera– alderdi politikoen illegalizazioa edo Udalbiltza lako erakundearen kriminalizazioa, beste askoren artean, baina, adibidez, arrazakeria eta xenofobia ere hedatuta daude gure gizartean. Frantzia ijitoak botatzeko asmoaren kasuan, adibidez, eztabaida hori Legebiltzarrean eta Jaurlaritzan gauzatzen ari da. Hori guztia argitu behar da, argudioz, sentsibilizazioz, lan eginez... eta hau udalen zeregina da. Nire ustez, lehentasunetako bat giza eskubideetan udal langileak prestatzea da, eurak direlako udalen botere publikoa, denona, erabiltzen dutenak.

Zer giza eskubide daukazu gogoan udal inplikazioari buruz berba egiterakoan?

Europako Batasunak badu Giza



“Udal langileak giza eskubideetan prestatzea lehentasunetako bat da, eurek daukatelako udalen botere publikoa”

Eskubideen Karta (Estrasburgon 2007ko abenduan onartu zena), eta hemen ere aplikagarria da. 300 udal baino gehiagok, gainera, Giza Eskubideen Udal Europearren Karta (2000eko maiatzaren 18a) sinatu zuten. Karta horietan giza eskubideak unibertsalak eta zatiezinak direla aitortzen da. Premietan dauden taldeen gutxienezko beharrak

asetzea ere giza eskubidea dela aitortzen da. Horrez gain, hainbat eskubide aitortzen dira: berdintasuna, hizkuntza, herritarren partaidetza efektiboa, zerbitzu sozialetara heltzea, etxebizitza duin eta segurua, osasuna, lana, hirigintza ego-kia, lasaitasunez bizitzeko eskubidea; administrazioaren transparen-tzia, herritarren datuen babesa,

Juan Landa

- Abokatuak
- Giza eskubideen gaineko jardunaldietan parte hartu du Berrizen

“Giza eskubideen gaineko kartak eta agiriak ondo daude, baina ekintzak behar ditugu”

administrazio on bat izateko eskubidea...

Udalen sare bat egitea izango litzateke asmoa. Udalek elkarri zelan lagundu diezaiokete?

Lehenengo, konzientzia indartu eta ahalik eta gehien hedatuta. Orain arteko kartak eta antzeko agiriak oso ondo daude, baina ez dira nahikoa. Zentzuz eta buruz, ekintzetara pasatu beharra dago; ikerketan, hezikuntzan, sentsibilizazioan... Ezinbestekoa da elkartzea. 1998an Bartzelonan onartutako udalen arteko konpromisoan adierazten denez, udalek ezkutuak izan behar dute herritarrek pairatzen dituzten eraso guztien aurrean.

Europar badago horrelako esperientziarik?

Udalen elkarlanaren esperientzia mordoa dago Europar, eta baita mundu osoan ere. Hor daude Pobreziaren Aurkako Udalen Aliantza eta Arrazakeriaren Aurkako Udalen Koa-lizioa edo Emakumeekiko Indakariaren Kontrako Udal Erakundearen Europear Sarea... Baina, agian, garrantzizkoena Giza Eskubideen Aldeko Europear Hirien Sarea dugu. 1998an sortu zen, eta bere hurrengo Nazioarteko Bilera Donostian egingo du 2012an. ■ A.U.

“Ez dugu gauza handirik aldatu, baina orain antolamendua hobea da”

Etxegorri da inguruetan ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiria daukan ostalaritza-establezimenduetako bat. 2006an zabaldu zuten Orozko inguruan, Bilbo eta Gasteiz artean dagoen ingurune ederrean, Gorbeia Natur Parkearen sarreran. Hasieratik kalitatearen alde egin zuten, eta apustu horren emaitza da gaur egun erakusten duten ziurtagiria.

Zergatik hautatu zenuten turismo arloko kalitate-sistema batekin lan egitea?

Etxegorri Landetxea artean proiektu hutsa zenean ere, garbi genuen kalitatearen aldeko apustua lehentasuna zela guretzat, eta ez bakarrik ziurtagiri bat lortzeko. Kalitatea lortu nahi genuen gure lanaren prozesu guztietan.

Zein onura edo abantaila ekarri dizue ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak?

Garrantzitsuena da sistema arautua eta, era berean, moldagarria dela, horrek lana erraztu digulako. Familia proiektu bati buruz ari gara, eta kalitatearen inguruan genituen ideiak geuk kudeatzeko moduko zerbitzuarekin bateragarri egin nahi genituen. ‘Q’ honekin, hori lortu egin dugu.

Behin ziurtagiria ezarrita, zein izan dira barne hobekuntzak? Eta antolaketan? Kudeaketan? Azpiegituretan?

Gure etxean sistema martxan jartzeak ez ditu aldaketa handiak ekarri. Lehen egiten genuena egiten dugu, baina prozesuak erregistratzeko moduak lagundu digu hobeto antolatzen eta etxeko lan guztiak errazago kontrolatzen.

Hobekuntza hauetatik zeinekin gelditzen da gusturago bezeroa?

Inkesten sistema ezarri dugu, eta horrek asko lagundu digu. Hasi ginenean, ilusio handiz jasotzen genituen bezeroen



zorionak, baina ez genuen inolako inkestarik egiten hobetzeko puntuak antzemateko. ‘Q’-a ezarri dugunetik, eta prestatu dugun inkestaren bidez, bezeroak hobetzen laguntzen digu, zerbitzuari buruzko bere iritzia jasotzeaz gain, hobetzeko iradokizunak ere biltzen ditugulako.

Laburtu esaldi bakar batean kalitatearen ziurtagiriaren onurarik handiena.

Prozesu guztietan exijentzia mailari eustera behartzen gaitu, eta hori oso ona da. Kanpora begira, erreferentziazko marka baten bermea daukagu.

Gomendatuko zenieke beste enpresa-

riei kalitate ziurtagiriarekin lan egitea?

Bai, zalantzarik gabe.

Uste duzu turismoaren ‘Q’ ziurtagiriak laguntzen diola enpresari lehiakortasunari begira?

Gure kasuan, sistema oraindik oso gaztea da, iaz lortu genuen ziurtagiria, baina bai, hori da helburuetako bat.

Zein da, zure ustez, turismo-kalitatearen ‘Q’ ziurtagiriaren kudeaketaren barruan landutako gaitasun baliagarriena edo garrantzitsuena?

Baliagarriena, gure lanaren etengabeko hobekuntzaren ideiarri forma eman ahal izan diogula.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismorako Euskal Agentziarekin batera, enpresarien esku jarri ditu lehiakortasunean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak. Adibidez:

Jardunbide Egokien Egitasmoa. Helburua da enpresarien profesionalizazioa hobetzea, eta helmuga turistikoa garela kontzientziatzea. Euskadin 323 establezimenduk dute Turismo Kalitatearekiko Konpromisoa Agiria.

Turismo Kalitatearen ‘Q’ egitasmoa. Egitasmo honen bidez bezeroen gogobetetasuna eta haien aurreikuspenak beteko direla ziurtatzen da. Euskadin 278 ostatuk edo jatetxek dute ‘Q’ ziurtagiria.

Bikaintasunaren EFQM Ereduearen egitasmoa. Egitasmo honen bidez kalitatean bikaintasuna lortzeko bideak jartzen dira. Euskadin 16 establezimendu parte hartzen ari dira.

IRITZIA >

Gutunak @

Mila esker denoi!

Durango aspaldian ospatu diren jairik jendetsuenak izan dira aurtengoak, hori dela-eta, gutun honen bidez, Durangoko Txosna Batzordeko eskerrak eman nahi dizkizuegu jaietan Pinondora hurbildu zareten guztioi. Eskerrik asko zuei, ordainean ezer jaso gabe, musu-truk, tragoak zein bokatak zerbitzatu dituzuen ia 800 bolondres horiei, eta eskerrik asko baita txosna gunera hurbildu zareten milaka lagun horiei. Zuek gabe jaiak ez lirateke posible izango. Esan bezala, aurtengoak jai jendetsuak eta arrakastatsuak izan dira; adibide bezala, urriaren 13ko paella lehiaketa eta osteko erreka jaitsierra jarri ditzakegu. Bietan ere gora egin du parte-hartzaile kopuruak.

Herritarrek egindako lanaz gain, eragin handia izan du txosnen kokaguneak ere. Argi geratu da Durangoko txosna gunea Pinondo dela. Hori dela-eta, dei egiten diegu agintariei datozen urteetan ere txosna gunea hau izango dela bermatuko duten mekanismoak martxan jartzeko. Galde diezaiotela herriari, ea non nahi dituzten txosnak! Bestalde, ezin ditugu aipatu gabe utzi jaietan egon ezin direnak. Hurrengo urtean guztiok ospatuko ditugu jaiak. Bukatzeko, dei egiten dizuegu guztiei 2011ko jaiak hobetzen laguntzeko. Edozein iradokizun egiteko, info@durangokotxosnak.org helbide elektronikoa dugu. Eskerrik asko eta hurrengo urtera arte! Ez dabil ba pozik Pan-txike! Beitu Patxikotxu... Jai ez da inoz amaitzen, gura ez badozu...

Durangoko Txosna Batzordea

Marokoko estatuaren errepresioa salatuz eta Saharako herriarekiko elkartasunez

LAB sindikatuak, egunotan El Aaiunen milaka sahararren kontra, Gdeim Izikeko protesta akanpalekua suntsitzean, Marokoko gobernuak erabiltzen ari den errepresioa salatu nahi du. Errepresio honek dagoneko hainbat sahararren heriotza (oraindik kopurua zehazteke dago), eta hamarkaren atxiloteta ekarri du.

Duela egun gutxi, akanpaturiko milaka pertsonen gure elkartasuna adierazi genuenean, bukaera tragiko baten arriskuaz ohartu genuen, zoritxarrez azkenean gertatu dena.

Kasu hau, Saharako populazioak egunero nozitzen dituen giza eskubide, eta eskubide zibil eta politikoen urraketa amaigabearen beste adibide bat besterik ez da, latza izan arren. Giza eskubideen urraketa hauek bereziki jasan behar izaten dituzte 1976. urtean Marokok okupatu zituen Saharako lurretan bizi diren sahararrek: torturak, atxiloteta bidegabeak, adierazpen askatasun eza, e.a. etengabeak dira. Halaber, saharar preso politikoek pairatu behar izaten dituzten eskubideen urraketa amaigabea da eta Saharako lurraldea banatzen duen "Apartheid" harresia existitzea guztiz salagarria.

Era berean, salatu beharrekoa da Espainiar Estatuaren jarrera, 1976. urtean Saharako lur kolonizatuak utzi zituenetik bere erantzukizunari kale egin diolako eta, horren erruz, Saharako herriak Maroko eta Mauritaniaren aurkako guda bati aurre egin behar izan zion, eta egun Marokoren aldetik nozitzen ari den okupazio ilegalari ere.

Denbora tarte guzti honetan, gai honetan ere bere jarrera demokratiko eza erakutsiz, Espainiar Estatuak ez dio inoiz Marokori exijitu okupazio ilegalari eta Saharako herriaren aurkako eskubide urraketei bukaera eman diezaien. Justu kontrakoa: Espainiar Estatuak, berdin izanik Moncloan zein gobernu egon den, etengabe hazi egin du Marokorekiko kooperazio politiko, ekonomiko eta militarra.

Honekin batera, salatu beharra dago Nazio Batuen Erakundeak (NBE) beste aldera begiratu duela beti Marokok NBEren ebazpenak bete gabe utzi dituenean.

Guzti honegatik, LABetik gure erabateko elkartasuna adierazten dugu Saharako herriarekin eta bere eskubide guztiak errespetatuak izan daitezen exijitzen dugu, bereziki Autodeterminazio Eskubidea. NBEk Saharako lurraldearen osoko deskolonizazio prozesua bururaino eramanez dadin bermatu behar du.

Bukatzeko, egunotan Euskal Herrian Saharako herriarekin elkartasunez eta Marokoko gobernuak beraiei kontra erabilitako errepresio basatia salatuz burutzen ari diren eta deituak dauden mobilizazio guztiekin bat egiten dugu LABetik.

LAB Sindikatua

Mendebaldeak ahazturik

Bitxia da gero: Mendebaldeak ahaztu egin du Mendebaldeko Sahara. Hortik dator herri horren sufrimendua, dagokien eskubidea gauzatzerik ez izatea. Mendebaldeak botata utzi ditu, Espainiaren adibideari jarraiturik.

Izan ere, beste inork baino lehenago Espainiak abandonatu zituen sahararrak. 1963an, Nazio Batuen Erakundeak erabaki zuen Mendebaldeko Sahara lurralde ez autonomoa zela. Horrek esan gura zuen potentzia administratzaileak, Espainiak, autodeterminazio-erreferenduma antolatu behar zuela, Mendebaldeko Saharako herritarrek independente izan gura zuten erabaki zezaten. Ez zuen egin. 1975ean, azaroaren 14an —etzi, beraz, 35 urte beteko dira—, Nazio Batuen Erakundeak exijituriko autodeterminazio-erreferenduma antolatu beharrean, Espainiak Mendebaldeko Saharako lurraldea —berea ez zen lurraldea— Maroko eta Mauritania artean zatitu zuen: lehenengoari, heren bi; bigarrenari, hegoaldeko herena. Une horretatik aurrera, Espainiaren kontra borrokatzen zen Polisarioa Maroko eta Mauritaniaren kontra borrokatzen hasi zen. Azkeneko horren kontrako gerrairabazi zuenean, Mauritaniak onartu egin zuen ez zeukala berak inolako eskubiderik Mendebaldeko Saharan, bakea sinatu zuen Fronte Polisarioarekin eta kontrolatzen zuen herenetik alde egin zuen. Marokok berehala okupatu zuen lurralde-zati hori ere bai.

1991n su-etena aldarrikatu zuen Polisarioak. Zergatik? Nazio Batuen Erakundeak autodeterminazio-erreferenduma antolatu behar zuelako 1992an. Misio bat ere bidali zuen Mendebaldeko Saharara, erreferendum hori antolatzeko: Minurso. Hemezortzi urte igaro dira, baina erreferenduma ez da egin. Ez da egin, Marokok oztipoa jarri duelako oztipoaren gainetik. Bai, egia da hori. Baina egia da, baita ere, inork ez duela behartu Maroko oztipoa ez jartzera. Inork ez dio esan Nazio Batuen Erakundearen erabakiak bete ezean zigorra jasoko zuela. Kontrako mezua helarazi zaio Marokori: berdin dio zer egin duzun, guk babestu egingo zaitugu. Hori horrela, Marokok lehen-tasunezko tratua du Europar Batasunarekin... nahiz eta giza eskubideak errespetatzen ez dituen.

Horregatik ausartzen da Maroko aste honetan egin duena egitera. Horregatik ausartzen da zibilez osaturiko kanpamendu baten kontra armada bidaltzera, sarraskia egingo duen jakitun. Badakiela, ko ez zaiola ezer gertatuko: inork ez dio 'nahikoa da' esango, inork ez du diplomazia-zigorrik ezta zigorekonomikorik ezartzealortuko. Zergatik? Frantziak ez duelako gura; Espainiak ez duelako gura. Hortik hasi beharko genuke, beraz, gure lana Mendebaldeko Saharari elkartasuna erakutsi gura diogun euskal herritar guztiok: Frantziari eta Espainiari exijituz. Marokoren aldeko jarrera itsua utzi, eta nazioarteko legedia betetzearen aldekoa har dezatela exijituz. Nazioarteko legedia bete, eta betearazi. Ez da erraza, jakina, baina ahalegindu beharra dago, mendebaldeak Mendebaldeko Sahara berriro ere botata utz ez dezan. Bihar manifestazioa dago Madril. Bihar arte.

(Eta ondo ibili, Tindoufeko kanpamenduetara Elorrioko Udala-ren laguntzarekin zoazten gazteok).

Mikel Basabe - Aralar

Sei hankako mahaia

Jose Luis Zubillaga
EB-Berdeak

A8ko bidesaria

Bidesarien gaineko foru arau proiektua aurkeztu zen urrian Bizkaiko Juntetxean, Durangaldeko, Busturialdeko eta Lea Artibai-ko erabiltzaileen diskriminazioari erantzun gabe, Bilbora doazenean Erletxetik aurrera gainerako erabiltzaileek duten doakotasunik ez baitute bidaia Zornotzan, Durango edo Ermuan hasi eta amaitzen duten.

Ezker Batua-Berdeak horregatik aurkeztu zuen osotasunezko emendakina, aurkeztu zen bakar, diskriminazio horri konponbidea ematea onartuko balitz emendakina erretiratzeko prestutasuna agertuz. Aldundia eta EB-B taldearen elkarrizketek esker, halaxe egin genuen egin ere, emendakinek gairik garrantzitsuenak zehaztu eta onartu ondoren, geroago garatzeko.

Durangaldea, Lea Artibai eta Busturialdeko erabiltzaileek jasaten duten diskriminazioa konpondu behar da

Hauek dira zehaztu ditugun gairik garrantzitsuenak:

Erletxerainoko eta Erletxetik ordainsariaren zenbatekoa; % 38an eta % 12an murriztu behar lirateke, hurrenez hurren.

Ordainsariaren kudeaketa; publikoa izan behar lukeela deritzogu, bideragarria den heinean.

Tarifa murrizketak edo deskontuak; foru arauak bidaien maiztasuna baino ez dukontuan hartzen, eta EBk proposaturik autoaren erabilera maximoa eta kutsadura txikia ere onartu ditu Aldundiak.

Ordainsari mekanismoak Zornotzan, Durango norantz; bi herri arteko bidea egiten duen kilometro horiek bakarrik ordaindu ditzan.

Datorren urtetik aurrera beharpen horiek gauzatzea itxaroten dugu, Durangaldeko erabiltzaileen poltsikoen mesedetan.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2010eko azaroaren 12a - 9. urtea - 394 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



KULTURA[>]

MUSIKA> EMANALDIA

Jorge Abadías gitarran, Aritz Luzuriaga baxuan eta Hasier Oleaga bate-rian dituen taldeak zabalduko du azaroaren 18tik bata bestearen osteko lau egunetan Durangaldera beste horrenbeste jazz eta blues emanaldi dakartzan Elorrioko Jazz eta Blues Jaialdia.

Nevermind Trio izenagaz aurkezten da Nirvanaren *Nevermind* diskoko kantak abiapuntu hartuta hiru musikari euskaldun eta gazteek sortu duten hirukotea. Kurt Cobain-en taldearen 90eko hamarkadako musika, jazz instrumentuetara eta moldeetara dakarte azaroaren 18an, 22:00etan, Ateneoan joko duten Abadiasek, Luzuriagak eta Oleagak.

Gazteak izanik ere musikan eskarmen-tu handikoak diren musikariek jazz musikari lotuta egin dituzte euren ikasketa musikalak. Eguenean Elorrion aurkeztuko dute Kurt Cobain-en musikan oinarritutako euren interpretazio pertsonala.

Jazzaldiko irabazleak

Elorrion hogeita batgarrenenez antolatatu duten jazz eta blues musikaren zikloaren bigarren eskaintzak ere Jazz eta Blues Jaialdiko doinu-aterpe emateko ezin aproposagoa den Arriola antzokiaren behealdeko Ateneo aretoa hartuko du oholtzatza. Datorren eguneko Nevermind Trio taldearen kontzertuaren hurrengo egunean, azaroaren 19an 22:30ean, eskainiko du Wierba & Schmidt Quintet Poloniako jazz boskoteak emanaldia Elorrion.

Aurtengo uztaillean 34. edizioa izan zuen Getxo Jazz Jaialdiko lehiaketaren lehenengo saria, bakarlaririk onenarena, Piotr Schmidt tronpeta joleari eman zitoten, eta publikoarenajaso ostean dator musikari gazteek osatutako taldea Durangaldera. Piotr Schmidt tronpetan, Marcin Kaletka saxoan, Michal Wierba pianoan, Michal Kapszuk kontrabaxuan eta Sebastian Kuchczynski baterian izango ditugu azaroaren 19ko Ate-

Jazz eta blues doinuz beteriko lau gau Elorrioko bi oholtzatan

Ateneoan lehenengo hirurak eta Portalekuan azkena, lau emanaldi ditu aurtun XXI. edizioa betetzen duen **Elorrioko Jazz eta Blues Jaialdiak**. Kurt Cobain-en kantak jazz eran joko dituzten hiru musikari euskaldunen taldeak eskainiko du lehenengo emanaldia: azaroaren 18an joko du **Nevermind Triok**



Wierba & Schmidt Quintet, azaroaren 19an

Nirvanaren 'Nevermind' diskoaren izena hartuta, talde haren bertsioak lehenengo zitarako

neoko gaua girotzen. Schmidt tronpeta-jotzailearen eta Michal Wierba piano-jotzailearen abizenak ditu izan eta izen boskoteak. Musikari handiak dira bostak eta "musika ausarta" egiten dutela nabarmendu dute jaialdiaren antolatzaileek.

Jazzaren eta bluesaren unibertsoaren ikuspegi anitza eskaintzen du Arriola kulturegunean antolatatu duten aurtengo jaialdiak: hirukote, laukote eta boskoteetan batutako musikarien eta instrumentuen askotariko konbinazioak eskaintzen ditu, eta Euskal Herrian, Madrilan, Polonian zein Britainia Handian egiten den musikaren erakusgarri ere bada programazioa. Jazzaren lengoia darabilte lehenengo joko duten talde biek, eta jaialdiko azken bi egunak dira bluesza-leendako pentsatutakoak.

Bluesa azken bi gauetan

Azaroaren 20an, 22:30ean, Madrilera metroan jotzen hasi zen eta estatuko armonika-jotzaile onenetarikoa den Naco Goñi musikariaren eta bere gitarrekin trikimailu eta ariketa harrigarriak egiten dituen Stevie Zee gitarrista handia zutabe dituen Naco Goñi & Stevie Blues Band laukoteak eskainiko du kontzertua Ateneoan. Euren sortutako kantak zein blues doinu klasiko bilakatutako bertsioak joko dituzte Elorrioko emanaldian lau musikariek.

Madriletik dator 2008an batu ziren bost musikariek osatzen duten Los Gatos Bizcos taldea ere. Boskote horrek azaroaren 21ean, 21:00etan, Portalekuan eskainiko duen kontzertuak borobilduko du jaialdia. Bluesaren, swingaren, rock and rollaren zein jazzaren hizkuntzak baliatzen ditu Los Gatos Bizcos taldeak, baina musika afroamerikarra da euren berbetan egiten duten musikaren oinarria: indar eta erritmo handiko talde

legez aurkeztu dute Elorrioko jazz eta blues egunei amaiera emango diena.

Azken edizioetan legez, asteburu bitan banatuta barik segidako lau gautarako programatu dituzte Jazz eta Blues jaialdiko emanaldiak aurtun. Datorren egunean, barikuan, zapatuan eta domekan Durangaldeko musikazaleen topaleku izango dira Elorrioko Ateneoa eta Portalekua. ■ I.E.

Euskal Herrian, Polonian, Britainia Handian zein Madrilan egiten den musikaren erakusleho

Gau bitan jazz eta beste bitan blusa entzungai, azaroko Elorrioko Jazz eta Blues Jaialdian

Naco Goñi & Stevie Blues Band, azaroaren 20an



Los Gatos Bizcos, azaroaren 21ean



Nevermind Trio, azaroaren 18an

PINTURA > LEHIAKETA

Haizetarako pintura lehiaketa, bihar, Elorrioko kale eta txokoetan

Iturizoro elkarteak antolatzen du, udalaren babespean, 21. edizioa duen hitzordua

Bakoitza bere tresnak besapean hartuta, hainbat margolari ibiliko da haizetarako pintura lehiaketarako bere koadroak prestatzen, bihar goizetik eguerdira arte, Elorrioren Guren duten tamainako euskarrion eta gura duten teknika baliatuta aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek euren koadroak, baina Elorrioren bihar egindakoak izan behar dira.

Iturizoro margolari elkarteak XXI. biderrez antolatu du lehiaketa.

Azaroaren 27ra arte
ikusgai izango dira
aurkeztutako lan guztiak

ta, eta aurreko edizioetan legez, udalaren babesagaz prestatu du biharko lehiaketa. Bihar, azaroaren 13an, 09:00etatik 10:00ak arte eman ahalko dute margolarien izena, eta euskarri moduan erabiliko dituzten oihal edo paperak zigitatuko dizkiete orduan.

Iturri kultur etxean da izena emateko hitzordua, eta goiz guztia izango dute gero, lanakosatzen joateko: eguerdian lanak aurkeztu ondoren, bazkaltzeko batuko dira margolari guztiak.

Bihar bertan, 18:00etan, egingo dute sari-banaketa ekitaldia, eta bihartik azaroaren 27ra arte Iturri kultur etxean ipiniko duten erakusketan egongo dira burututako lan guztiak ikusgai. ■ I.E.



K.A.

‘Musikagaztetxeroa’: egun guztirako plana Durangon

Bazkaldu aurretik Kuntur Lee-k joko du eta arratsaldean eta gauean Durangaldeko beste hainbat taldek, bihar

Durangaldeko eta Lemoako gaztetxe eta gazte asanbladen koordinakundeak antolatu duen ‘Musikagaztetxeroa’ ekimeneko egitarauan jasotako kontzertuak eskainiko dituzte, bihar 12:00etan hasi eta gauera arte, Durangon.

Kruters, Army Arma,
Desperdizio eta Disorders
taldeak, Merkatu Plazan

Eguerdiko 12:00etan emango diote eskualdeko musika taldeen lana oholtzaratzea helburu duen ekimenari hasiera: Intxaurre taberna kanpoaldean eskainiko du Kuntur Lee bakarlari durangarrak eguneko lehenengo emanaldia.

Andra Marian herri-bazkaria egin eta gero, 16:00etan hasita, Gaztetxean, karpan eta Intxaurre zein Ttipi-Ttapa tabernetan izango dira Durangaldeko 13 talderen emanaldiak. Ondoren, 22:30ean, Merkatu Plazan joko dute Kruters, Desperdizio, Army Arma eta Disorders Durangaldeko taldeek. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Martin Urrutia,
‘Txotxe’
Irakaslea



Geruzak

Azken hamarkadan oroitzapen historikoa berreskuratu nahian hainbat talde sortu da Estatu Espainiar guztian. Talde hauek Gerra Zibilean eta osteko urteetan bizi izandakoaren testigantza jaso dute, azken lekuko bitartez. Han eta hemen ibili dira Arantzadi elkarteak ere; bide bazterretan, zabortegi zaharretan, lepo gainetan gorpuak hilobietatik ateratzen.

Gorpuen inguruan dauden lur geruzak garbitzen dituzten bitartean, beste kultur eragile batzuek, garai haietan gertatutako hainbat istorio eta pasarteren berri ekarri digute, beti ere poliki, tentuz eta gehienetan oraindik ere zailtasun ugari aurre eginez.

Sinestezina baldin bada ere, gerra ostean gertatutakoari buruzko argitasun horiek administrazioaren jarrera koldarraren aurrean herritar batzuk agertu duten burugogorkeriari esker gertatu dira. Askotan galdetu izan dugu zergatik ez diren argira eman hainbat istorio, pasarte edo egoera.

Bat-batean “beldurra” hitza etortzen zaigu ahora, eta hala da, baina geruzak jaso ahala, ikusi dugu beldur hau ez dela izan herri galtzaile izateagatik sortu dena, ez, programatutakoa baizik, urteetan landutako beldurra dela ohartu gara jasotzen ditugun testigantzen arabera.

Betirako lurra eman nahi izan zaie pertsoneri, herri bati, ideia batzuei, garbiketa sistematiko baten bitartez. Eskerrak ez gaudela hau onartzeko prest eta herritar zein eragile nekaezinei esker argira ekartzen ari direla lur azpian estali nahi dutena. Horren lekuko Arantzadi zientzia elkartearen lanaren berri emanez San Agustin kulturgunean burutu den erakusketa, edo estreinatu berri den *Izarren Argia* filma. Ongi etorriak biak.

Jarraitu dezagun lurperatutakoa argira ekartzen, eta salatu dezagun administrazioaren jarrera epela.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA > ERROMO

kronika

Markel Onaindia

“Brilloa” ateratzeko sasoia ailegatu da



Durangaldeko hiru ordezkariek bete zituzten lehenengo hiru postuak, Erromon, joan zen domekan jokaturako saioan. Bizkaiko Bertsolari Txapelketako azken kanporaketa Beñat Ugartetxea mallabitarrentzat izan zen, eta bere atzetik geratu ziren Gorka Lazkano berriztarra eta Eñaut Uruburu abadiñarra. Lehenengo biek eskuratu zuten hurrengo faserako sailkapena; eurekin batera pasatuko dira Miren Amuriza eta Eneko Abasolo “Abarkas” ere.

Ugartetxea eta Lazkano ziren Erromoko saioa irabazteko faborito. Eta bai: beste lauak baino hobeto ibili ziren. Lazkanok azken agurrean “brilloa” ateratzea falta zitzaioela zioen; Ugartetxeak ere distiratu zezakeen apur bat gehiago. Berriztarra bakarka onena izan zen, eta mallabitarra ofiziotan zein puntuari erantzuten. 392 puntu batu zituen, guztira, Ugartetxeak. Eñaut Uruburuk ere ez zuen saio txarra egin, baina puntuari erantzuten egindako poto batek, besteak bes-

te, finalerdietatik kanpora utzi zuen. Hurrengoan beharko!

Batzuek izandako presio eta urduritasunaketa besteen asmatu ezin ez zuten saio onik ahalbidetu; kanporaketa fasearen ildo beretik, hain zuzen ere. Orain, finalerdietan “brilloa”

ateratzeko sasoia ailegatu da. Durangoko Landako Gunean izango dugu lehenengo zita, azaroaren 21ean. Lazkanok jokatu du anfitrioi papera. Amuriza eta Abasolok 28an abestuko dute Zornotzan, eta Ugartetxeak abenduaren 5ean Gernikan.



MUSIKA > ELKARRIZKETA



“Bikainak, kantagarriak eta ederrak dira zinez kanta hauek”

Gaur, azaroaren 12an 22:00etan, kontzertuan aurkeztuko du *Eta tira eta tunba* disko berria **Joseba Tapiak**, Durangoko Plateruenean. Elkarrizketa honetan aurkeztu digu lana.

Zer moduz joan da asteburuko Bartzelonako emanaldia?

Ilusio eta gogo handiz joan naiz Bartzelonara. Aretoa bete aurkitu nuen, eta gogoz ekin nion lanari. Gaia ezaguna zuten kataluniarrek: hiru karlistada kontatzen dituzte beraiek, eta guztietan borrokan ibili omen ziren. Carles Beldak lagundu zidan azalpenak katalanez ematen (aspaldiko laguna dut, eta bera ere oso interesatua dago gaiari), eta jendeak gogoz kantatu zuen errepikapen eta leloetan. Asteburuan, gainera, Erromako Aita Santua Bartzelonan izanik, ederki zetozen *Eta tira eta tunba* kantuaeren lehen koplak: “Biba biba biba gure jaungoikua, biba biba biba aita erromakua...”

Pozik zaude disko berriko kantek zuzenean duten indarragaz? Bikainak, ederrak eta kantagarriak dira, zinez, kanta hauek. Aspaldikoak izan arren, lelo eta errepikapenei esker, jendea berehala sartzen da giroan. Nahiz eta batzuetan “Biba gure fedia espainikoa”

kantatu behar izan aurpegiak okertuta... Ironiak leku nabarmena hartzen du, eta irribarrea gozo loratzen da ezpainetan. Alde batekoen eta bestekoen paperean berehala sartzeaz aparte, esango nuke talde bakoitzaren pentsamoldea erraz ulertzen duela publikoak, eta agerikoa da *feedbacka*.

“Aspaldikoak izan arren, jendea berehala sartzen da kanta hauekin giroan”

Haize-instrumentuek osatutako taldeak lagunduta zatoz.

Bai, liberalen banda daukat batetik; eta karlistena, bestetik. Uniformerik barik baina serio aritzen dira tresnari putz egiten. Atakera prest egoten dira, eta euren tronpeta, bombardino edo tubak gora jasota armoniazko uhinak jaurtitzen dituzte frenteko belarrietara. Hura metalaren indarra!

Zelako tropa elegantea kantak defendatzeko...!

Zelako lana izan da kanta horiekin diskoa osatzea?

Hasieran borroka gogorrean ibili nintzen, tonu egokia topatu arte. Paperean idatzitakoa zuzenean entzutean dator sorpresa, gero zuzenketak... Horrela, etengabe. Halako batean balekotzat ematen duzu, baina utziz gero bukaerarik ez duen jarduna izaten da... Diskoa atera eta gero ere aldaketa mordoa egin dizkiegu ia kantu guztiei. Ederra da hori. Gero emankizunetik emankizunera musikari bakoitzak egokitze bat egiten du: pianoak edo forteak finkatzen; tenpoak, sarreak eta bukaerak ziurtatzen...

Dokumentazio lan handia egiten duzu hitzak eta gaiak hautatzeko. Atsegina da prozesu hori?

Kasu honetan ez dut horren besteko lanik egin. Bilduak eta argitaratuak zeuden bertso hauek, eta, gehienez, entresaka egiten izan dugu lana. Laguntza izaten dut

horretan, ez bainaiz bilketa lanean aditua. Behin letrak musikatzen hasita sartzen naiz ni bete-betean. Bigarren tenpoan katigatzen naiz testuarekin eta proiektuarekin. Hainbat proiekturen artean erabaki ezinik, arrankatu ezinik pasatzen dut denboraldi bat lehenengo. Gero, buru-neke horretan ibiltzen da plazerra, azaldu ezkutatatu, atsegina desatsegina, intermitentean.

Nondik sortu zitzaizun disko honetarako gaia?

Kasualitatez. Bertso horiek irakurtzean ederrak iruditzen zitzaizkidalako; gorde, eta ariketa modura doinua jartzen hasi nintzen haietako batzuei. Baina ez ninduen berehala alde hartara kargak bultzatu, ez nuen aterratze pista garbi ikusi hasieran: lainotua ageri zen, eta airean noraezean bezala, leihotik batera eta bestera begiratzaren aritu nintzen. Halako batean, kristauei amabirjina azaltzen zaien antzera, niri ere kordea etorri zitzaidan, eta begiak zabaldu nituen normalean baino gehiago.

Zelan sortzen dituzu doinuak? Behin letra esku artean duzula?

Azken aldian testuaren atzetik ibiltzen da doinua: testuak markatzen du estruktura eta tonua. Testuak ematen dizkit pistak: ironikoa den, triste den... Temperatura hartze bat

izaten da lehendabizi, eta batzuetan ondorengo prozesuan harrapatzen duzu pieza, pagotxa, urrea. Beste batzuetan alperrik izaten da; topikoa, betikoa, errepikapena, zapata ateratzen da kainaberan...

Orain urte batzuk ‘Real politic’ diskoa aurkeztu egon zinen Plateruenean. Ze oroitzapen daukazu? Hura izan zen nire lehenengo kontzertua Plateruenean. Oraindik ez dut aretoa ondoegi ezagutzen. Gogorapen ona daukat, baina, oso ondo zaindu gintuzten: afari ederra ekarri ziguten kamerinoetara, eta giro ona sumatu nuen gero eszenatokian. Gogotan nago gure disko berriaren aurkezpena bertan egiteko. Oraingo formatuan indartsuago irtingo gara tranpaldora.

Bigarren gerra karlistan liberelek eta karlistek idatziriko letrak musikatzen ditu

Aurreko disko hura kaleratzeko sortu zenuen Zakurraren Biolina zigilua. Zer moduzko esperientzia da diskoa kaleratzeko prozesu guztiaren ardura izatea? Zakurraren Boliaren atzean zaunka dago, errebindikazioa, protesta, egonezina, bizi nahia eta aurrera begiratzeko modua. Oraindik horretan nabil bigarren disko honetan ere. Halere, esperientzia interesgarria izan da orokorrean: besteen lanak eta makurrak ederki ikusten dira teleskopio beharrik gabe. Dena den, teknologiaren demokratizazioak (bere adiera on eta txarrarekin) eta disko banaketaren egoerak ia umezurtz utzi gaitu; olatuaren joan-etorrian gabilta, kostatiko oso hurbil, harkaitza jotzeko beldurrez, erregaia eskapatzeko zorian, eta inork salbatuko ez gaituelakoan...

Zelakoa izango da Platerueneko barikuko kontzertua?

Bost lagun ariko gara tronpeta, tronboi eta guzti. Ordu t’erdiko kantaldia eskainiko dugu, eta disko kanta gehienak joko ditugu. Saiatuko naiz testuingurua ondo esplikatzen, eta XIX. mende bukaeraren kokatuko gara guztiok. Espero dut gure artean gerran ez hastea. Horrela gertatuko balitz, kargamentua prest eramango dut, beraz, argi ibili durangarrok...! ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

AZAROAK 12 22:00etan
JOSEBA TAPIA + JEXUXMAI LOPETEGI
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8euro.

AZAROAK 13 22:00etan
MICAH P. HINSON with CENTRO-MATIC
KONTZERTUA. Sarrera: 17,30-18euro.

AZAROAK 18 20:00etan
RAFA RUEDA. KANTUAREN KANTOIA
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

AZAROAK 19 22:00etan
OREKA TX + IBAN NIKOLAI
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



EL CLUB DE LAS MUJERES INVISIBLES
Vaivén Producciones (Donostia)
Azaroak 20 • 20:00etan



OTTO
Elirale Dantza Taldea (Lapurdi)
Azaroak 21 • 18:00etan

San Agustín
KULTUR
GUNEa
DURANGOKO UDALA



45. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



XXI. mendeko piraten antzera dator Zain musika taldea Durangoko Azokara

Euren lehen diskoa argitaratuko dute laister Baga-Biga diskoetxearekin. 'XXI. mendeko piratak' izenburua izango du. Berriztarrek aurtengo Azoka barrutik bizitzeko aukera izango dute. Urduritasuna nabari zaie Unai, Froufe, Alberto eta Asierri.



Iban Gorriti

www.durangokoazoka.com
www.gerediaga.com

Sei urte dira klasekideak lehenengo eta lagunak lagunak gero, batu eta elkarrekin musika egiten hasi zirenetik. Aurretik ia guztiek esperientzia izan dute beste talde batzuetan parte hartuta. Arinago ere maketa bat izan dute esku artean. Baina "serio", Azokara-ko aterako dutena izango da euren lehen diskoa.

Berriztarrek dira. Beraz, Berriz-ek badauka beste musika talde ezagun bat, Seiurte, Etxe, Hyssopus, Tres41... taldeekin batera. Zain taldeko lau mutilak Gaztea irratiak antolatutako maketa lehiaketari esker egin dira ezagun. Ez da, baina, euren lehen lehiaketa. Mañaria

"Mundua konpontzeko gogoeta txikiak" jasotzen dituzte kantetan

eta Berrizen antolatu izan diren maketa lehiaketetan izan dira, eta irabazteko ateetan geratu izan dira, beti bigarren. Kuriosoa da, gainera, Froufe taldeko bateriak azkeneko Berrizen egin zen Aldapa lehiaketan bakarka parte-hartzea erabaki eta irabazi egin zuela.

Maketa lehiaketa irabazita, bideoklip bat grabatzeko aukera izan dute, BBK Live jaialdian parte hartzeko eta, orain, hurrengo, telebistaz emango duten kontzertu batean ere parte hartuko dute lehiaketa bereko beste bi irabazleekin batera.

Aitzakiak kantarekin irabazi dute lehiaketa eta bideokliperako ere hori aukeratu dute. Gainera, disko bat grabatzeko aukera ere izan dute. Udan Berrizko Lorentzo Recordsen izan dira diskoko 12 kantak grabatzen. Ez dira bakarrik egon. Mikel Puoren (Tres41 taldea), Nerea Sanchezen (Keike) eta Etxeren laguntza ere izan dute. Kantetan "mun-

dua konpontzeko gogoeta txikiak" jasotzen dituztela aipatzen du Unai, taldeko abeslariak.

Durangoko Azokan Baga-Biga diskoetxearekin egongo dira. "Fuer-tea izango da han egotea", diote. Txikitatik Azokara joan eta orain eurak

Durangoko igerilekuko ur zikinetan hotza pasatu zuten argazkia ateratzeko

stand batean egotea "arraro" egin-go zaiela uste dute. Diskoari azken ukituak ematen harrapatu ditugu. Diskoaren azalerako bizi izan duten anekdota ere kontatu digute: "Asmoa ur azpian argazkiak ateratzea zen. Iban Gorritiren ideia. Baina Durangoko igerilekura joan eta zegoen zikinarekin ezin izan genuen egin. Azkenean, baina, jantzi eta guzti ur zikinetan sartzeraz ausartu ginen,

eta hotz handia pasatu eta gero, hortxe dago emaitza".

XXI. mendeko piratak izena dauka Zain taldearen lanak. Eta datorren astean, azaroaren 19an,

telebistaz emango duten Gaztea kontzertuan parte hartuko dute Mungian, irratiko maketa lehiaketan irabazle izan ziren beste bi taldeekin batera.

Gure semeen Zain

Zainekoak zorteko dira. Aitak izango dira. Aita piratak. XXI. mendekoak. Azken ekografiak dio seme lodikotea izango dela. Eta jakitun dira, zilbor-hestea jausitakoan, laser bidez, tirrin modura erdi-erdian zulo txoa geratuko zaiola. Gazteko maketa lehiaketa entzutetsua irabazi ostean, euren lehenengo diskoarekin lotura izango da.

Berrizko laukoteak 12 kanta erdituko ditu, kanta punk-pop zorrotzak bezain eztiak. *XXI. mendeko piratak* lehergailu bat izango da. Zortea izan dut, argazkiak atera ahal izan dizkiedalako eta

Gurea izeneko kanta entzun. Dinamita hutsa da. Taldearen soinuak badu euren "osaba" diren Berri Txarrak taldearenetik zer bait, Unairen ahotsean. Eta Rise Against eta horrenbeste miresten dituzten Millencolin taldeen soinuak ere oinordetzan hartu dituzte. Hori bai, hankak lurrean momentu oro izan ditzatela eskatzen ausartzen naiz: badakit izorratzen duela horrek, baina arrakasta ez da existitzen Euskal Herrian. Hori bai, Zainen diskoa izango da Azokan beste seme bati erosiko diodan lehenengoa. Nire semeari. ■ I. Gorriti



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka

2010eko abenduaren 4tik 8ra

DANBAKA >



Runba, pop-rocka, 70eko hamarkadako rocka eta metal musika gaur Espaloian

Oñatiko "rumberoena" gogoratzekoa izan zen; lagunarteko festa, kontzertua baino gehiago

Gainerako taldeak fin eta txukun aritu ziren arren, Ymotek piztiak ez du lehiarik indarrean

JON BEREZIBAR GONZALEZ > ARRASATE
Pisuarengatik ere neurgarria izan zitekeen barikuko saioa: runbaren arintasun festazalea metalik astun eta boteretsuenaren aurka. Epel ez gintuzten utzi, behintzat, bi taldek: El Trio Calaverak, Oñatiko rumberik katxondo eta zabarrarenarekin eta Ymotekek, betiko metalaren Titanak bezala. Nabarmentzekoa, hala ere, Front Malabarrekoen apustu indartsua. Eta, Rock Privadokoak espero moduan, etxe-

rako lanak bikain eginda eta ohol-tzan disfrutatzen.

Festarako 'rumba' laukotea

Ahots lakarrekin, gitarrekin ezin asmatuta eta kaxoi-flamenkoa bere aldetik erritmoarekin, deskalabrutik gertu egon ziren El trio Calaverakoak. Rubio joandako lagunari dedikaturiko kontzertua izan zen eta emaitza ere horixe: lagunartekoa. Hori bai Poteando por Oñati "hit" -ak ez du huts egiten eta giroa

berotzea behintzat lortu zuten. Zerbezak, turutak, kanpaitxoak eta berriketa asko. Andaluziar ukituaz ere ez ziren ahaztu, azentu horrekin eta gaztelaraz hitz egin zuten eta kontzertuan. Lehiaketa euren modura moldatu dute, ez dago txarto, baina ikusi behar ea lehiaketa bera euren moduetara makurtuko ote den.

Dotorezia ia profesionala

Bigarrenak herri beretik baina alde ederrarekin. Turutak cowboy botengatik aldatu eta ondo pentsatu eta neurtutako emanaldiarekin etorri ziren Rock Privadokoak. Aitzakia gutxiko zuzenekoa da hauena, entsegu orduak bizkarrean eta egin nahi dena ondo jakinda. Neurria ere

ondo hartua diote Danbakako formatuari – bigarren aldia da – eta nabari da. Etxerako lanak ondo eginda eta eurak disfrutatzeko prest. Abestiak eta eguneroko istorioak. Zer berri? Abestiak abestiago. Bi disko kalean izatea ez da eta alferrikakoa (*promoa* egitea ere ez zitzaien ahaztu, badaezpada ere). Estilora zurrunez lotzea da agian "bainetako" bat, originaltasuna puntugarria da eta.

'Power' emari justuegia

Gitarra biziak bai baina ez basatiegiak. Bateria, hori bai, zanpatzaila eta baxu betegarri jostaria. Horiek dira estiloaren elementuak baina piztia noiz agertuko zain utzi gintuzten Front Malabarrekoek.

Izan ere, izerdi tanta batzuk gehiago ere ez lirakeke sobera egongo.

Piztia piztuta, ikusleak nagi

Abadiñokoek bai, piztia berehala atera zuten, alajaina. Intro eta zeremonia guztiak egin eta hasi ziren ohiko zereginen: egurra baino beruna partitua. Hauen jokoa ere aski ezaguna da Danbakan: muturreko musika, gitarra murrutaketa indar menperagaitza. Teknikoki ezin finago eta energia uholde geldiezinarekin. Agian baterian ibili da piztia herrenka. Bestela, erritmoaren kontrol ia mekanikoarekin euren izan da gaurko izerdi putzurik handiena. Pena azkenak jotzea eta ikusleak nekatu-antzean egon izana.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIA



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe•Elorrio•Tel.: 94 658 29 96



iunik ileapaindegia

astelehenetik
asteazkenera
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Aniso estegiz, 1•Durango•Tel.: 94 621 64 91



- Amaia Salazar
- Nukleo ileapaindegia dauka Elorrio

Tindagai azkarrak

Ileapaindegian geroago eta denbora gutxiago egiteko produktuak merkatatzen dabilta. Ileo tindagaia 10 minutuan ematen dute Nukleon.

Tindagai hauek zelako produktuak dira?

Tindagai bereziak dira. Gaur egun denbora falta daukagula-eta, ileapaindegian ematen dugun zerbitzua geroago eta arinago da.

Produktu kimiko gehiago ditu?

Ez dauka produktu kimiko gehiago, tindagaiaren formulazioa arinago aktibatzen sistema konplexu bat darama, eta horregatik denbora erdia behar izaten du prozesua burutu ahal izateko.

Deneriko koloreak eman daitezke?

Bai, kolore ia guztiak lortu daitezke, beltzetik ilehorira, eta ñabardura guztiekin.

Zelako iraupena dauka tinte honek? Tintura honen iraupena bestena bezalakoa da.

Metxak egiteko ere balio du?

Metxak egiteko aukera ere badaukagu, baina, metxa kopuru handia egin behar bada, ez da komeni. Aurreko metxak egiten direnerako, atzekoak garbitu behar dira, 10 minutu pasatu direlako. Normalean aurreko metxa zuztarrak konpontzeko edo erretokatzeko erabiltzen dugu tintura hau.

ESTETIKA ZENTRUAK



Parafarmazia Dietetika

Amaia

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Aniso Estegiz Zumardia • 1zk. behe • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIO -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari berok depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

KIROLAK >

Jon Garciak hiru domina lortuta itxi du denboraldia taekwondoan

Durangarrak urrezko domina lortu du Europako Taldekako Txapelketan; gainera, aurten bigarren amaitu zuen Munduko Kopan eta hirugarren Europako banakako txapelketan



Europako banakako lehia behatza apurtu zuen eta hemendik aurrera datorren denboraldirako errehabilitazioa hasiko du.

Jon Garcia durangarrak Europako Taldekako Txapelketa irabazi du Azerbaijango bakú herrian, Espainiako selekzioagaz, oraintsu. Horrela, denboraldi arrakastatsua birilbidu egin zuen gaur egun Zamoran bizi den taekwondo arte martzialetako borrokalaria. Izan ere, aurretik, orain urte erdi, Korean bigarren geratu zen Munduko Kopan eta, ondoren, San Petersburgoko Europako banakako txapelketan hirugarren amaitzea lortu zuen.

Taldekakoan ezin izan zuen bererik eman, Munduko Kopan lehiatzen zebilela behatz bat

apurtu zuelako. Harrezkero, ehuneko ehuna eman ezinda ibili da. Ekainean, Europako banakakoan, hirugarren amaitu zuen, baina gorago geratzeko aukera bazuela deritzo, oineko minarengatik izan ez balitz.

Taldekako txapelketan ere horixe gertatu zitzaion. Ligaxkak hiru neurketak irabazi zituzten Italia, Herbehereak eta Turkiaren kontra. Bere taldekideek euren lehiak irabazi zituztenez, Italiaren eta Herbehereen kontra indarrak gorde zituen Garciak, bi lehiak galdut. Ordura arteko Europako txapeldunak

Behatz bat apurtuta, ezin izan du daukan guztia eman txapelketan

Aurtengoa "urte zoragarria" izan dela adierazi du durangarrak

ziren Turkiaren kontra, zituen guztiak eman eta irabazi egin zuen. Ondoren, final-laurdenera Danimarka kanporatu zuten. Finalerako pasea Errusiak eragotzi zien. Borrokaldietan bina berdindu ondoren, desentseoa Garciak jokatu eta galdu egin zuen. Hala ere, emakumeen taldeak lehenengo amaitzea lortu zuen, eta puntu horiei gizonenak batuta urrea jantzi zuen durangarrak.

"Denboraldi zoragarria" izan dela adierazi du Garciak, eta eskerrak eman dizkie atzean lanean aritu diren guztiei. ■ J.D.

Lointek taldeak fitxatu du Eneritz Iturriaga abadiñarra

Hainbat urtean Italiako taldeetan lehiatu ondoren, Eneritz Iturriaga abadiñarrak jakinarazi duenez, datorren denboraldira aurrera Bizkaiko Lointek taldean korrituko du. Espainiako Txirrindularitza Federazioaren rankingaren arabera, gaur egun emakumezko talderik onena da Lointek. Datorren urtean, besteak beste, Mireia Epelde eta Lucia Gonzalez izango ditu taldekide.

Aurten zorte txarra izan du Iturriagak; eroriko batean klabikula apurtu eta denboraldia bertan behera utzi behar izan zuen. Harrezkero, errehabilitazio prozesuan dago. ■ J.D.

Titinek kaiolatik kanpora utzi du Berasaluze

Lau t'erdiko pilota txapelketatik kanpora geratu da Pablo Berasaluze, Titin III.aren kontra 22-11 galdu ondoren. Labriten jokotutako kanporaketa Trizioko aurrelari beterranoa 9-0 aurreratu zen markagailuan, eta zama hori astunegia egin zitzaion berriztarrari. Gainera, Titinek sei sake sartu zitzaion, eta horrek ere zuzenean eragin zuen norgehiagokaren garapenean.

Partiduaren erdi inguruan Berasaluzek tanto ederrak ere egin zituen —batez ere, airez— baina beste hainbat txapara joan zitzaizkion; urduritasunak ere ez zion lagundu. Ondorioz, lau onenen ligaxkatik kanpora geratu da berriztarra. ■ J.D.

Abadiñok lidertza kendu dio Padura Bri

Joan zen jardunaldiaren atarian, Gernika Sporting eta Padura Bk lidertza partekatzen zuten futboleko bigarren erregionalean. Padura Bk Abadiño hirugarren sailkatua bisitatu zuen, eta abadiñarrek 2-0 menderatu zuten Arrigorriagako taldea. Horrekin batera aldeko beste emaitza bat ere izan zuten: Gernikak 0-1 galdu zuen, Berangoren kontra.

Ondorioz, Abadiñok lider moduan jasoko du bihar Amorebietaren bisita. Amorebieta azken hirugarren dago, eta orain arte partidu bakarra irabazi du. ■ J.D.



Ermuan erabat lokaztutako zirkuituan lehiatu ziren ziklistak.

Murgoitiori Garcia gehitu zaio podiumean

Murgoitiok sasoi betean darrai; Garcia lehenengoz igo da podiumera elite mailan

Hirumet taldea osatzen duten hiru txirrindulariak sasoi betean daude. Egoitz Murgoitiok eta Daniel Ruizek elite eta 23 urtez azpikoan bina garaipenekin hasi bazuten denboraldia, joan zen asteburuan Ruizek beste garaipen bi lortu zituen eta Murgoitiok Kantabriako lasterketa irabazi eta Ermukoa bigarren amaitu zuen. Gainera, aurten elite mailan lehenengoz parte hartzen ari den Xabier Garcia elo-

riarrak Ermuan podiumera igozteaz lortu zuen, lasterketa hirugarren amaituz. Lasterketa hori Ruiz de Larrinagak sprintean irabazi zuen Murgoitiori.

Domekan honetan, Amorebieta-Etxanon kadete eta gazte mailako ziklo-kros lasterketa korrituko dute, Jauregiarriako zelaian. Bestalde, abenduaren 26an, Elorrioren erabakiko dira modalitateko aurtengo Euskadiko txapeldunak. ■ J.D.

Arerio zuzenaren kontra, puntu bila Sestaora

Orain hiru partidu Lauburu-lbarraren kontrako lehiakortasuna berreskuratu behar du Sasikoak behetik irteteko



Zalatamborrek hiru puntuak eraman zituen Durangotik joan zen asteburuan. Juanra de la Cruz

Sasikoak mailari eusteko borrokan arerio zuzen duen Sestao bisitatuko du asteburuan. Orain arte erakutsitako gorebeherak orekatu eta puntuak sarriago batzen hasi behar dute durangarrek.

Ligako hirugarren garaipena lortu guran joango da Sestaora Sasikoa-Durango

Oreka hori lortzeko jarraibidea Lauburu-lbarraren kontrako partiduan dute. Orduan lider zegoena 6-4 menderatu zuten durangarrek, itxura oso ona eskainiz. Horrek erakusten du taldeak baduela gora egiteko adina kalitate, nahiz eta liga

hasiera honetan kostatzen ari zaion lehiakortasuna uneoro mantentzea. Sestao ere ez dabil fin, etxean partidu bat irabazi eta beste bi galdu baititu.

Elorrioko Buskantza

Maila bat beherago, Elorrioko Buskantza txukun dabil. Seigarren daude, eta mailari eusteko jarraitu beharreko bidea landu dute orain arteko partiduetan. Asteburuan etxean La Bellotaren kontra jokatu dute, eta iazko talde bien arteko lehiak ikusita, gol askoko partidua iragarri daiteke. Izan ere, iaz La Bellotak hiru puntuak eraman zituen Elorriotik, 8-13 irabazita. Bigarren itzulian, Elorriko Buskantzak odolkiak ordainetan eman eta, kasualitatez, 8-13ko emaitzagaz irabazi zuen. Beste datu bat: Elorrioko mailako talderik golegileena da, 38gaz.

Mallabia lider

Mallabia maila harrigarrian ari da. Orain arte, sei partidu irabazi eta bakarra galdu dute. Ondorioz, lider dira euskal ligan. Gainera, alde handiz golik gehien sartu duten taldea dira, 55ekin. Hurrengo talderik golegileenari 21 goleko alde ateratzen die oraintxe bertan.

Sasikoa B ere goiko postuetan dabil. Kurutziaga da maila horretan estuen dabilena. Azken hirugarren daude sei puntugaz. Gainera, domekan etxean jokatu duen partidua ez dirudi erreaktziorako egokiena, Inter bigarren sailkatuak bisitatuko baititu.

Aipamen berezia merezi dute Abadiñoko Lagunek eta Gu Lagunak taldeek ere. Zein bere mailan lider dira; ez bata ez besteak, oraindik ez dute partidurik galdu aurren. ■ J.D.

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea



Sasoi betean

Talde eta entrenatzaile guztiok egiten dugu aurre-denboraldiko fasea ilusio handiarekin: ondo prestatzeko momentua izan ohi da, eta denboraldi berriari hasiera ona emateko aukera ezin da galdu. Baina talde denak ezin dira ondo hasi; hori gutxi lortzen dute. Beraz, gaurko omenaldia, ondo baino hobeto hasi den Durangoko Kulturalari buruzkoa da.

Hamaikagarren jardunaldian heldu da bere lehenengo porrota; berarekin goiko postuetan zegoen Laudio izan da bolada horri amaiera ezarri diona. Galdu barik egoteak, konfiantza maila oso handia izatea suposatzen du. Horregatik, lehenengo partidua galdu eta gero, garrantzia handia hartzen du hurrengo partidua. Kulturalaren gol kopurua ere izugarrikoa da: batez beste, gol bi sartzen ditu partiduko; Iker eta Muniozguren pitxitxi taularen buru dira. Hori, gaur egungo futboleko oso gaitza da.

Oraindik goizegi da, baina argi dago play-offeko lau txartelak garesti salduko direla; batez ere, ikusita nolako taldeak dauden (Sestao, Portu, Amorebieta, Laudio, Beasain, Gernika,...), eta zelako berdintasuna dagoen. Ikusi beharko da nola eusten dioten Axiarren mutilek. Prestaketa fisikoak garrantzi handia hartuko du eta, arlo horretan, Eka Kortazarren eskua igartzen da taldearen ibilbidean.

Argi dagoena da egindakoak eginda daudela, eta ateratako puntuek lasaitasun handia emango diote taldeari, lanean eta ez beste ezertan kontzentratzeko. Kulturala, beraz, hautagai serioa da aurtengo play-offetan sartzeko.

Amaitu da Bereinkuaren abentura Cafés Baquén

Eguaztenean Elezkanok 18-3 kanporatu zuen Mikel Bereinkua, final-laurdenetan

Amaitu da Mikel Bereinkua gaztearen Cafés Baqué Txapelketako abentura kadeteetan. Final-laurdenetan Danel Elezkanok zaratamoz 3-18 kanporatu zuen eguaztenean, Traña-Matienan jokatu duen lehiak.

Lurreta pilota eskolagaz entrenatzen duen 15 urteko pilotari gazteak ez zuen aurrera egiteko aukera txikiarik izan. Elezkanok, urtebete helduagoa denez eta gorputza askoz for-

matuagoa duenez, erraz agindu zuen atzean eta, ondorioz, Bereinkua partidu osoan saldu-ta ibili zen. Dena dela, txapelketa ona osatu du behe-behetik ekin baitzion. ■ J.D.

Behe-behetik hasi eta final-laurdenetara heltzea lortu du

Anbotopeko eta Zaldua lider saskibaloian

Durangarrek gizonetan eta zaldibartarrek emakumeetan, bolada onari eusten diote

Saskibaloian sasoirik onenean ditugun taldeak dira Anbotopeko, gizonen lehenengo erregionalan, eta Julza-Zaldua, emakumeen bigarrenen. Gainera, Anbotopeko orain arteko bost neurketak irabazi ditu.

Durangoko taldeak orain arte Aguilas Salesianos-en kontra sufritu du gehien, baina par-

Anbotopeko erraz irabazi ditu guztiak; Zalduak gehiago borrokatu behar izan du

tidu hura ere 11 puntugatik irabazi zuen. Gainerako laurak alde handiz irabazi ditu.

Julza-Zalduak Begoñazpiren kontra bakarrik galdu du. Beste partidu bi ederto sufritu eta borrokatu ondoren irabazi ditu: Barakaldoren kontra hiru puntugatik nagusitu ziren, eta Abandokoren kontra puntu bigatik.

Tabirako Baqué ere goian dabil, lehenengo erregional berezian. Garaipen beharrean dabiltzanak gizonen eta emakumeen talde nagusiak dira. Gizonak azken bigarren daude EBA mailan, eta emakumeak azken aurreko, sei porrot eta garaipen bakarraz. ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

Pilotariak aldapa gogorrenei ekiteko prest Olazarreko finalera bidean

Eguenean final-laurdenak hasiko dituzte; horra heltzeko bidea gogorra izan bada, sailkatu diren pilotarien kalitatea ikusita, hemendik aurrerakoa gaitzagoa izango da

Olazar Pilota Txapelketa aurrera doa apurka-apurka, eta datorren eguene-tik aurrera, lau jardunalditan, lau t'erdiko eta binakako finalerdiak osatuko dituzte. Oro har, faboritoak heldu dira final-laurdenetara, eta horrek esan gura du Zal-dibarko pilotalekuan ikuskizuna segurtaturik dagoela.

Gipuzkoarrak eta nafarrak ordezkariarik zabalena izango duten final-laurdenetan elorriar bi ere ariko dira bikotea osatuz: Azpirik eta Landaburuk Garraldaren eta Untoriaren kontra jokatu dute. Duten guztia ematen asmatzen badute, aurrera egiteko aukerak dituzte; bestela, komeriak, aurkariak ez direlako kamutsak. Untoria, esaterako, gaur egungo munduko txapeladuna da.

Azpiri eta Landaburu elorriarrek abenduaren 2an jokatu dute

Binakako gainerako partiduak aztertuz, datorren eguenean Larrañaga eta Zabaleta dira faborito (azken hori Aspegaz hartu-emanetan dabil). Batez ere, Zabaletaren eskuinak erabaki dezake partidua; Yoldik eta Linzoainek irabaztaile sena dute euren alde. Azaroaren 25ean, aldiz, partidu berdindua dago aurreikusita, nahiz eta Jaunare-

nak -iazko lau t'erdiko txapeladuna eta Aspegaz hartu-emanetan dabilena- partidua desorekatu dezakeen.

Lau t'erdian, hilaren 18ko kanporaketan, txapelketak Ansotegi Mendinueta baino sasoi hobean harrapatu duela ematen du. Hilaren 25ekoan, Ezkurdia -iaz Cafés Baqué txapelketa irabazi zuena- da faborito; Etxeberria trinketetik dator eta ezkerre ez du hain arina. Amaitzeko, Jaka eta Elezkano II.aren artekoan ez dago faborito argirik. ■ J.D.

FINAL-LAURDENAK

Azaroak 18 (21:30)

Lau t'erdian:

Ansotegi-Mendinueta

Binaka:

Larrañaga-Zabaleta / Yoldi-Linzoain

Azaroak 25 (21:30)

Lau t'erdian:

Ezkurdia-Etxeberria

Binaka:

Jaunarena-Galarraga / Mendizabal-Irureta

Azaroak 30 (18:30)

Lau t'erdian:

Jaka-Elezkano II

Binaka:

Onsalo-Zubiri / (Beitia-Uriarte/Arrese-Kastillo)

Abenduak 2 (21:30)

Lau t'erdian:

Uriona/ (Peñas-Dorronsoro)

Binaka:

Garralda-Untoria / Azpiri-Landaburu



Datorren egunean hasiko dituzte final-laurdenak. Kepa Aginako

Igor Urien Espainiako Txapelketaren bila

15 urteko abadiñarrak prototipoen CM Sport txapelketa irabazi dezake Montmelón

Igor Urien 15 urteko abadiñar gaztea Montmelóko zirkuituan dago, asteburuan lasterketa bi korrituko dituelako. Bihar, prototipoen CM Sport Espainiako Txapelketako azkeneko lasterketan lehiatuko da, eta txapel-dun geratzeko aukera handiak

Lider dago, eta aurten lasterketa batean ere ez da podiumetik jaitsi

ditu, bera baita sailkapeneko liderra. Orain arte denboraldi ikaragarria osatu du, eta lasterketa batean ere ez da podiumetik jaitsi.

Horrez gainera, domekan, 18 urtez azpiko Formula Libre Txapelketako azken aurreko lasterketa korrituko du, Emilio Villotaren taldeagaz. Txapelketa horretan ere lidertza defendatuko du. Azkeneko lasterketa abenduaren 10etik 12rako asteburuan izango du Aragoiko Alcañiz herrian. ■ J.D.



Irudietako kotxeagaz lehiatuko du Urienek zapatu honetan.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Gallarta

Domekan, 11:30etan, Berrizburun

GOREN MAILA

Elorrio - Lolu

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Iurretako - Ibarsusi

Zapatuan, 17:00etan, Larakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Amorebieta B

Zapatuan, 15:30etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeno-Zaldia B

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Bizkerre

Domekan, 16:00etan, Larakozelain

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko Buskantza - Centro Extremeño

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga Ikastola - Inter

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

Sasikoa Durango B - Gernika Lagunak

Domekan, 10:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrioko B - Abadiñoko Gaztetxe

Domekan, 12:00etan, Elorrioko kiroldegian

Abadiñoko Lagun - Mendibeltz

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Sapuberri - Beseka

Domekan, 10:00etan, Tabiran

Dantxari - Sestao B

Zapatuan, 17:30etan, Lanbide Heziketa Institutuan

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Tabirako Baqué - Aurteneche Maquinaria

Domekan, 12:30etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Tabirako Baqué - Gernika

Zapatuan, 16:30etan, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Julza Zaldia - Otxarkoaga

Zapatuan, 16:30etan, Zaldibarko kiroldegian

PILOTA

XXV. CAFÉS BAQUÉ

Kadeteak:

- Apeztegia-Artola

- Atutxa-Arrizabalaga

Gazteak:

- Arratibel-Dorronsoro

- Aretxabaleta-Larunbe

Azaroaren 17an, 19:00etan, Mañariko pilotalekuan

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	
Saldu / Erosi Errentan eman / Errentan hartu Lan eskariak / Lan eskaintzak Galdu / Aurkitu Eman / Hartu		

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleua (komuna ateratzeko aukera) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igo-gailua jartzekotan dira. Bero-gailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Tel.: 655 712 105

Abadiño. Pisua salgai Abadiñon, Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sar-zeko moduan. Negoziagaria. Telefonoa: 667 882 338.

Abadiño. Etxea saltzen da Abadiñoko Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Denak kanpoalde-runtz ematen du. Oso polita. Deitu eta ikusi: 615 007 216

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua, egoera ezin hobean. Tel.: 647 777 392

Bilbo. Pisu haundia eta eguzkitsua saltzen da Bilboko Basurto auzoan. Hospitaletik gertu eta tren geltokiaren ondoan. Basurtuko beheko par-tean dago, Indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera pare-gabea! Tel.: 635 727 937

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea - jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 ter-raza partikular (12 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komu-nitarioak ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, lau ar-mairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atak eta zorua alda-tuta. Garajea eta igerilekuare-kin. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Al-tzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpo-tik (06): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barru-tik (07): parketa (elondo), su-kaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. Tel.: 607 715 353

Durango. Atiko zoragarria salgai Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berrizta-tua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta ko-muna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659 425 890

Durango. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), komu-na, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kan-pora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. Telefonoa: 699 409 959

Durango. Etxebizitza salgai Duragon. Logela bi, egonge-la, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000. Tel.: 696 255 083. 17:00etatik aurrera deitu.

Durango. 94m2ko etxea salgai, herriko gudarien pla-zan (osasun etxe zaharraren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ede-rrekin. Prezioa: 343.000 euro (57m). Tel.: 615 76 08 01.

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Berritua, 124 m2, gas natura-leko berogailua, sukalde hor-nitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Telefonoa:685 734 825

Elorrio. Pisu eder bat salgai, Auzoa auzoan. Leku zoraga-rria. Telefonoa: 639 020 581

Elorrio. Pisua salgai, Berrio-Otxoa kalean berriztuta da-goen jauregian. 70 m2-ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, 9 m2-ko trasteleua, 19 m2-ko ga-raje itxia. 303.000 (trastele-ku eta garaje barik 283.000). Nagore: 653 748 001

Garai. Oar-Erdikoa baserria, 6. Garaiko San Migel auzoan. Udaltzetik 150 metrora. He-goaldera begira. 300 m2-ko solairua. 10.000 m2-ko lur-saila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreferentzeko. Proiektua aurkeztuz gero, etxebizitza bi egiteko aukera. 639 833 489

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean dei-tu. 655 702 647

Mañaria. 90 m2, hiru loge-la, bi komun, egongela-jan-gela eta sukalde guztiz jan-tzia. Altzariz hornitua. Mira-dorea eta bista ikusgarriak. 13 m2-ko trasteleua. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bizitzera sartzeko prest. Pre-zioa: 220.000 euro. Aukera oso ona! Tel.: 646 675 051

ERRENTAN EMAN

Berriz. 90 m2-ko eta 3 loge-lako pisua errentan. Igogai-lua, terraza eta garajea. Telefonoa: 94 682 00 41

Berriz. Pisu bat errentan eman nahi dut berrizen. 3 lo-gela, 90 m2, igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. Telefonoa: 94 682 00 41

Durango. Pisua errentan: 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrak. 4. pisua, igo-gailu eta berogailuagaz (gas naturala). Tel.: 638 125 838

Durango. Gela bat daukat li-bre Duragon, etxea astele-henetik ostiralera partekatze-

ko asmoarekin. Deitu: 658 72 45 90 telefonora. Rober.

ERRENTAN HARTU

Berriz. Berrizen edo ingu-ruan pisua alokatu nahi genu-keen bikote bat gara. Deitu:669 956450

Durango. Duragon 1-2 lo-gelako pisua alokatu beharra dugu. Olatz 627 470 544

Durango. Pisua konpartitu-ko nuke beste pertsona ba-tzuekin. Tel.: 666 202 273

